

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko martxoak 15 • 1305 zenbakia



KORRIKA

EUSKARAREN LEKUKOA BIHOTZEAN



Etxe ko aseguruak
estimatzen duguna
babesten du.
Aitzariak,
elektrodomestikoak,
arropa, balio
handiko gauzak...
Sartu eta azalduko
dizugu!

**ETXE
ASEGURUA**

EUKi
ASEGURUAK

Euki-n zure etxearen
neurriko babes onena
eskaintzen dizugu

INFORMAZIO GEHIAGO: eukiseguros.com

AUPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa · Gourmet aretoa · Garajea · Trastelekua

NEINOR STORE: Bidebarrieta, n° 6

900 11 00 22 · neinorhomes.com



etakitto.eus atari berria

herriko aktualitatea
elkartearen jarduerak
bideoak
argazkiak
zorion-agurrak...



Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Eguaztena egun berezia izango da Kontxa Laspiurentzat. 99 urterekin, Korrikaren lekukoa eramango du bizitzan bigarren aldiz, eta herrikideen esker ona jaso ahal izango du euskararen alde bizitza osoan zehar egindako lan handiarengatik.



ARGITARATZAILERA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Yanire Sagredo

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

OHARRA

Datorren asteko alea (hilaren 22an jasoko duzuen) Aste Santuaren aurrekoa izango denez, kontuan izan hurrengo astean ez dela astekaririk izango. Hori dela-eta, edozein informazio, iragarki, eskela, zorion-agur... kaleratu nahi baduzue igual aurreratu beharrean izango zarete. Datorren astekoaren ondorengo alea apirilaren 5ean izango duzue buzoietan.

Hortik esanak



Kaikua Euskal Herrian bakarrik aurkitu daitekeen pieza da, bakana. Gure kultura bakana da. Objektu monoxiloa da, pieza bakarrekoa, urkiz egindakoa, ardatza makurtua duena, ardiak jeztean hanken artean sartzeko. Estetiko-ki eder-ederra da, eta behatz bakar batekin har daiteke eskulekutik, orekari eutsiz. Esnarria sartu eta berehala irakiten du esneak, mikrouhin labean baino azkarrago: sortzen duen erreakzio termikoa horren handia da harriak burbuilen artean lebitatzen duela.

FERMIN LEIZAOLA, etnografoa

Kulturaren aritzen den orok du pentsamendu kritikoa, hautu bat delako, eta garrantzi handikoa, gainera. Mundu horretan berezkoa da sortzaile orok zerbait adierazi nahi izatea, ia-ia lanbidearekin bat datorren zerbait da espiritu kritikoa hori sustatzea. Kultur kontsumitzaileak aipatzera-koan, nire ustez kultura ez da kontsumitzen: kultura bizi, partekatu edo sortu egiten da. Osasunarekin edo hezkuntzarekin parekatzen dut nik kultura, horiek biak ere ez direlako kontsumitzen.

JON MAIA, dantzaria

Kirola garrantzirik gabeko zerbait da askorentzat, baina klasismo handia dago kritika horien atzean, batzuentzat kirol xumeak eta kirol jatorrak baitaude. Badirudi zure bizitza futbolaren edo saskibaloaren inguruan eraikitzen baduzu xumea zarela, eta ehizaren inguruan egiten baduzu, berriz, intelektuala. Badaude erlijioa edo estatua familiaren aurretik jartzen dituztenak ere, eta horiek ez ditugu zorotzat jotzen. Zergatik talde baten zaleak bai?

JAVIER LOPEZ, Pennsylvaniako Unibertsitateko irakaslea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OTXO-KUARTO → Kontrakotasunari indarra emateko. Ze oste! "Ze txapa ta ze otxo-kuarto!, gaiñian jo jok barren".

TUTULUMENDI



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 17
EGUNEZ Morgado (San Agustin, 3)
ASTELEHENA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
MARTITZENA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUAZTENA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
EGUENA 21
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
BARIXAKUA 22
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)

GAUEZ BETI, 2024an,
Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Jose Angel Lizundia Ruiz**. 74 urte. 2024-03-06.
- **Javier Mayo Espada**. 48 urte. 2024-03-08.
- **Manuel Paz Fernandez**. 85 urte. 2024-03-08.
- **Juanjo Basauri Eiguren**. 65 urte. 2024-03-09.
- **Antonio Garcia Bernardo**. 65 urte. 2024-03-10.
- **Iban Ortiz de Villalba Goikoetxea**. 56 urte. 2024-03-12.



Astelehenean hasiko dira Zaporeak erronkarako dilistak biltzen ohiko tokietan

Astelehenean, martxoaren 18an hasiko da Zaporeak-Lesbos Proiektuaren erronka solidarioa. Mireia Alonso eibartarrak beste sukaldari batzuekin batera antolatutako erronkan, aurreko urteetan bezala, Greziako errefuxiatuei jaten emateko elikagaiak bilduko dituzte. Janari-bilketa martxoaren 22ra arte egingo da, eta Eibarren, iaz bezala, pardina dilistak batu-ko dira, jarraian aipatzen ditugun toki hauetan: T. Etxebarria kalean (Arat hortz-klinikaren azpian), ikastetxeetan, Teknikerren, Debe-gean, Ipuruako Jubiletxean, Untzagako Gizarte Etxean, Amañako

kioskoan, SD Eibarko dendan, eta ... eta kitto! Euskara Elkartearen. Bestalde, bihar, Eibar - Villarreal B partiduaren aurretik, 15:00etatik 16:00etara, dilistak jasoko dituzte sarreran, SD Eibarko armarriaren azpian.

Janari-bilketarekin batera, Zaporeak proiektuari laguntzeko beste bide batzuk daude. Horrela, premia duen talderen bati hilero laguntzen dioten Guridi tabernakoei, urtarrilean eta otsailean bildu dituzten 600 euroak Zaporeak elkartekoei ematea erabaki dute, argazkian ikusten duzuen moduan.

“Dementziak: ezagutzen dituzu?” hitzaldia emango du AFAGIk martxoaren 20an

Zaintzaileen lanari balioa emateko eta herritarrak alzheimer gaixotasunaren inguruan kontzientziatze-ko, Gipuzkoako Senitartekoen, Lagunen eta Alzheimerra edo beste dementziaren bat duten pertsonen elkarteak (AFAGI) “Dementziak:

ezagutzen dituzu?” hitzaldia antolatu du martxoaren 20rako, arratsaldeko 17:00etan, Portaleako areto nagusian. Hizlaria M^a Victoria Lucero izango da, elkarteko psikologoa. Saioa doakoa eta herritar guztiei zuzendutakoa izango da.

Gure Eskuk ikurriñak eta nafar banderak salduko ditu Korrika egunetan

Gure Eskuren ‘Herri Libre Bat’ dinamikaren baitan, herri harro bat irudikatuko du 23. Korrikan. Diotenez, “Gure Esku ere bertan izango da, egunero gure ikurrak zabalduz eta Euskal Herria harrotasunetik erakutsiz. Baina gurekin batera herritar orori egiten diogu dei gure herriko ikurrak hartu eta korrikan zehar haiekin eramateko. Bete ditzagun errepide ertzak, egin dezagun korri gure ikurrekin esku, gerri zein lepoetan eta erakutsi dezagun herri bat garelara”. Asmo horrekin, ikurrin zein nafar banderen salmenta abiatu dute Interneten, baita herri askotan ere, tartean Eibarren: “Martxoaren 19an, martitzena, 18:30etik 20:00etara egongo gara, Toribio Etxebarria kalean dagoen Zapore izozki-dendan; eta eguaztenean, Korrikaren egunean, berriz ere egongo gara bertan, 09:00etatik 12:00etara”. Horrez gain, martxoaren 22an (barixakua) Untzaga inguruan ipiniko dute postua, 19:00etatik 20:30era.





Lore eta landare azoka egingo da bihar goizean Urkizun

Eibarko Udalak eta Dekolore landareen inguruko dibulgazio-elkartek antolatuta, bihar XIV. Lore, Landare eta Zuhaitzen Azoka egingo da Urkizuko parkean, 10:00etatik 14:30era. Hamalau ekoizlek hartuko dute parte eta, beste batzuetan bezala, mota guztietako landare eta lore naturalak ikusi eta erosi ahal izango dira bertan: fruta-arbolak, arrosa-landareak, zuhaixkak, barruko landareak, sasoiak, usaintsuak, baratze-landareak, kaktusak eta beste batzuk. Erabilera tradizionaleko eta sukaldaritzako haziak eta belarrak ere egongo dira, kosmetika naturaleko produktuak,

eta artisautza, hala nola lore prentsarekin egindako koadroak, lore-motiboak dituzten bitxiak, edo banbuzko oinarrietan kapsulatutako lore lehorrez egindako bitxiak. Horrez gain, haurrendako bi tailer eskainiko dira: prentsaturako loreen tailerra (11:30etik 12:30era) eta landatzen ikastekoa (12:30etik 13:30era).

Hauek hartuko dute parte: Zunoñar Lorategia (Oiartzun), barrurako, apaintzeko eta bildumarako landareak; Viveros Belar (Zaldibar); Islaya (Oiartzun), kaktusak eta landare zukutsuak; Ortuberri (Iurreta), baratze-landarea eta lo-

re-landarea; Urtinea (Usurbil), barrurako landarea, apaintzeko eta sasoiak; Aritzikurengo Tienduka (Nafarroa), kosmetika naturaleko artisau-produktuak; Javier Beascoetxea (Iurreta), moztutako loreak, lore lehortua, kaktusak eta landare zukutsuak; Lore Prentsatura (Donostia), lore prentsaturak, lore lehorrekin egindako koadroak; Hazi Ekologikoak (Lasarte), erabileratradizionaleko eta sukaldaritzako hazi eta belarrak; Sojo Natura (Lekunberri), kosmetika naturaleko artisau-produktuak; Sara Letamendia (Aizarna), kosmetika naturaleko artisau-produktuak; Flores Ganchillo (Nafarroa), lore-motiboak dituzten bitxiak; Tissus Artisautza (Atxondo), lore lehor kapsulatua; eta L'Atelier de Su (Berastegi), moztutako loreak, lore lehorrak, lore-lanak, kokedamak.

1969koen kintada-bazkaria apirilaren 13an izango da, Unzaga Plaza hotolean

Ekitaldia datorren apirilaren 13an, zapatuan, egingo dute, orain dela bost urtekoa baino egitarau xumeagoarekin, Unzaga Plaza hotolean egingo den bazkari batekin. Hala ere, ezustekorentzako tartea laga-

tzen dute antolatzaileek. Diotenez, laster emango dute sarrera/izenematea egiteko kontu-zenbakia- ren berri. Eta gogoratu nahi dute Facebooken daudela, "Eibar 1969" bezala.





Bidebarrietatik Errekatxura doan igogailua martxan dago

Errekatxuko etxe berrietara doan igogailua martxan ipini dute, nahi duenak erabiltzeko. Bidebarrieta kaletik, San Agustin zeharkalearen paretik sartu behar da, eta asmo horrekin hesiekin babestutako sarbidea prestatu dute. Igogailuak Errekatxuko etxe berrietaraino igotzeko aukera ematen du.



Haurrentzat bereziki pentsatutako fosilen tailerra eta itsas irteera domekarako

Euskal Kostaldeko Geoparkeak haurrentzat bereziki pentsatuta dauden bi bisita berezi antolatu ditu, eta lehena domekan (martxoak 17) izango da. Izena ematen dutenentzat fosilen tailerra eta itsas-irteera prestatu dute, euskaraz (10:00etatik 12:30era). Antolatzaileen berbetan, “Mutrikun Nautilus Ikasgune Geologikoa bisitatuko dugu, bertan dagoen amonite-fosilen bilduma bikainaz gozatuz. Ondoren barkuan

Saturraran hondartzara joango gara, bertan kostalde honetako flysch beltza agerian baitago. Zazpi hondartzen gune ezkutu honetan hainbat sekretu ezagutzeko aukera paregabea izango dugu”. Irteera berbera errepikatuko dute martxoaren 24an, baina egun horretan gazteleraz izango da. Erreserbak egiteko eta informazio gehiago izateko, Geoparkearen webgunera jo dezakezue, bertan daude xehetasun guztiak eta.



Armeria Eskola Elkarteko ena aurtengo batzarra Teknikerren egingo da, barixakuan

Martxoaren 22an egingo du Armeria Eskola Elkartek Urteko Batzarra. Bertan 2023an egindako proiektuak ezagutarazi eta 2024rako aurreikusitakoak aurkeztuko dituzte. Horrez gain, Jon Angulok “La bola de cristal: qué hacer bien en el presente para estar en el futuro” hitzaldia emango du. Amaiera ekitaldia, berriz, Unai Andueza Gipuzkoako Foru Aldundiko Sustapen Ekono-

mikoko Zuzendari Nagusiak egingo du, eta ondoren networking-erako gune bat egongo da. Bertan 1974ko promozio koei intsigniak emango zaizkie. Batzarra Teknikerren egingo da aurten, eta bertaratutakoek instalazioak bisitatu ahaliko dituzte. Izena emateko 943203244/633909388 telefonoetara deitu edota elkarte@armeriaeskola.eus helbidera idatzi daiteke.



Bilduk ezezko botoa emango die PSEren aurrekontuei, “gabezia nabarmenak” ikusten dituelako

Erabakiaren berri ematen duen idatziaren arabera, “PSEk aurkeztutako aurrekontua kontinuista da, eta herri honek behar duen jauzi kualitatiboari atek ixten dizkio”. Eibarrek dituen errotzeki ez die la erantzuten ere gaineratu dute. Horrekin batera, aurrekontuaren inguruko ados ipintzeko aukerarik ez egotea, “azken momentuko PSEren prestutasun ezaren ondorioz” izan dela azpimarratu dute. Bilduren udal-taldearen arabera, sozialistek aurkeztutako proposamenak ez die gizartearen eskaerei erantzuten, hainbat arlotan (etxebizitza-politikan, trantsizio sozio-ekologikoan, politika feministetan, zaintza-ereduan eta euskara zein kulturaren besteak beste). Bilduko ordezkarien iritziz, “governantza eremuan urratsak eman behar dira, herritarrek erabakietan parte hartzeko aukera izan behar dute, horretarako formula berriak asmatu eta espazioak herritarrei zabalduta”. Diotenez, “herriaren beharrak

ez dituzte kontutan hartu. Eibartarrek hiri-eredu berdeagoa eskatzen dute, baina PSEk, modernitatearen izenean, berdeguneak ez sortzeaz gain, gune horiek suntsitzen jarraitzeko asmo irmoa erakutsi du”. Aipatutakoez gain, beste gabezia asko aurkitu dizkiote proposamenari. Bestalde, hainbat bilera “sintonia onean” egin eta gero, adostasuna iristear zegoela, PSEren akordio-proposamena “oso urria” izan dela diote: “EH Bildu udal taldearen ezetza jasotzeko akordio proposamena mahaigaineratu dute”.

Bestalde, aurreko astean Plan Nagusiaren aldaketa puntualari buruzko albistean, horri esker Jaurlaritzak **Txontako hegoaldean babes ofizialeko 200 etxebizitza eraikitzeko** aukera izango zuela esaten genuen. Gauzak argitze aldera, **proiektu honek Eibarko EH Bilduren babes osoa duela nabarmendu dute**, Eibarko Ekialdea biziberritzeko sinatu zuten akordioan jasota dago eta.



Goi Argi elkarteko enbako batzarra domeka arratsaldean izango da

Goi Argi elkartekoek domekan egingo dute urteroko batzarra, Toribio Etxebarria kalean elkarteak dituen lokaletan. Batzarra 18:30ean hasiko da, 2023ko balorazio eta balantzearekin, eta 2024rako aurreikuspenarekin. Ondoren, zuzendaritza batzordea berritzeari ekingo zaio. Amaieran oparien zozketa egingo dutela iragarri dute. Elkartetik ahal den jende gehien agertzea eskatzen dute. Bestalde, urtean zehar hildako bazkideen aldeko meza ere ospatuko dute, 13:15ean San Agustin elizan.



Nekazaritza-ibilgailuen azterketa teknikoak

Debemenetik jakinarazi dutenez, nekazaritzako ibilgailuen aldiko azterketa teknikoetako hurrengo saioa apirilaren 23an izango da Eibarren. Goizeko 09:00etan hasiko dira IAT azterketa horiek, Azitaingo industrialdeko Greyhounden instalazioetan. Kontuan hartu behar da Unitate Mugikorra bakar-bakarrik egun eta toki horretan egongo dela.

Kalera, kalitatezko osasun sistema publikoa eskatzeko

Debarrenen pentsiodunen mugimenduak eta Agijupens, Duintasuna, Ernai eta Matraka elkarteek deituta, osasungintza publikoaren aldeko manifestazioa egingo da bihar Eibarren, 12:00etan Untzagatik hasita. Orain dela urtebete egindakoaren bidetik, osasungintza publikoan gertatzen ari diren murrizketak salatuta dituzte, aste honetan manifestaziora deitzeko Arrate Kultur Elkartean egindako agerraldian.



Biharkoa eskualde mailako manifestazioa izango da eta, beraz, Debarrenen herriar guztiak daude deituta bertan parte hartzera. Deialdia zabalteko eguaztenean egindako agerraldian esan zuten, “iaz, lelo berarekin bi manifestazio burutu bagenituen ere, zoritxarrez, osasungintza publikoaren egoera ez da hobetu, eta berriro ere kalean salatuko dugu osasungintza publikoa jasaten ari den narriadura. Egoera hau ez da zerutik etorri. Gaur egungo egoera arduradun politikoek egindako plangintza eta kudeaketa politiko arduragabearen eta negatiboaren emaitza da”.

Gauzak horrela, osasungintza publikoak norabide aldaketa behar duela uste dute: “Norabide aldaketa horretan Lehen Arretak giltzarria izan behar du. Lehen Arretako lantaldeak paziente baten osasun-arazoan jarraipena egiteko gaitasuna eduki behar du, longitudinalidadea. Arreta presentziala lehenetsi behar da”.

Horrekin batera, geroz eta luzeagoak diren itxaron-zerrendekin oso kritikoak dira: “Osasun publikoaren murrizketa-politikak, espezialista bat eskuratzeko itxaron-zerrendak eta ebakuntza kirurgiko bat egiteko epeak



Debabarreneko pentsiodunen mugimenduaren eta Agijupens, Duintasuna, Ernai eta Matraka elkarteetako ordezkariak agerraldia egin zuten eguaztenean, eskualdeko herritar guztiak mobilizatuzera deitzeko. SILBIA HERNANDEZ

izugarri luzatzea ekarri du. Ezin dugu onartu zerrenda horiek murriztea, zerbitzuen pribatizazioaren kontura. Osasuna ez da merkatu-ondasun bat, eskubide unibertsala baizik. Norabide aldaketa horretan, orain arte egin diren pribatizazio guztiak geldiaraztea eta lehengoraztea eskatzen dugu”.

Hori dela eta, osasungintza publikoa defendatzeko eta eskatzen ari diren norabide aldaketa hori gauzatzeko, eskualdeko herritar guztiak deitu dituzte manifestazioan parte hartzera, “zaintza sistema publiko, duin eta kalitatezkoa bermatuko duen osasun publiko berri baten alde”.

Pribatizazio guztiak geldiaraztea eta lehengo egoerara bueltaztea

Eibarren bezala, Euskal Autonomia Erki-degoko hiru hiriburuetan ere kalera irten-go dira bihar, Osasun Publikoaren aldeko plataformen koordinakundeak deitutako mobilizazioetan “kalitatezko osasun sistema publiko eskatzera”. Eskaera zehatzak egingo dituzte: “Orain arte egin diren pribatiza-

Biharko eskaera berberakin iaz bi mobilizazio egin baziren ere, gauzak konpondu beharrean, azken urte honetan egoerak okerrera egin duela nabarmendu dute.

zio guztiak geldiaraztea eta lehengoraztea, baita erakunde pribatuak osasun laguntza publikoan sartzea ahalbidetzen duen 15/97 Legea baliogabetzea ere”. Horrekin batera, bateraezintasun medikoa berreskuratu eta indartzea, eta baliabide publikoak hobeto aprobetxatzea eskatuko dute. Era berean, mutualitateek berriki bi osasun sistema ezberdin sortzeko erabili duten estrategia salatu dute, “bata gainfinantzaturako konpon-tzailea biztanleria aktiboarentzat, eta bestea deskapitalizatua gainerako herritarrentzat”.

Zaintza-lanak gizonenak ere badira



Matraka! neska* gazte taldeak antolatuta Emakumearen Nazioarteko Egunean egindako manifestazioak jendetza elkartu zuen barixakuan, *Gure bizitzekin negoziarik ez!* zioen pankartaren atzean. Mobilizazioan parte hartu zutenek kaleak aldarriz bete zituzten eta, batez ere, zaintzak denon artean banatzeko eskaera entzun zen. Eta zaintza izan da, baita ere, Martxoaren 8ko lantaldearen eskutik asteburuan Errebal Plazan egindako bi jardueren ardatza: zapatuan zumbatoi saioa egin zen, Neledantza eta ND21 taldeen eskutik; eta domekan Kaxak dantza-ikuskizuna eskaini zuen, jarraian denen artean murala osatuta amaitzeko.



Argazki gehiago:
[https://etakitto.eus/
argazki-galeriak](https://etakitto.eus/argazki-galeriak)




Bideoak ikusteko:
[https://etakitto.eus/
bideoak](https://etakitto.eus/bideoak)





ARGAZKIAK: NELEDANTZA ETA PAULA ROMERO



Eibarren bertan sortutako energia berriztagarria esku-eskura

Euskadi mailan eratu den bigarren Tokiko Energia Komunitatea da Eibarkoa. TEK honek eguzki-energiaren onurak eskainiko dizkie parte hartzeko izena ematen dutenei, energiari garbiena, eraginkorra eta merkeena beraien eskura ipinita. Herriko hiru eraikin publikoren teilatuetan ipini dituzten instalazioek bi kilometroko radioan dauden 246 etxe eta denda txikiri energia emateko ahalmena daukate, horrela udalerrir osorako irismena ziurtatuta.

Informazio gehiagorako eskaneatu kodea




Zalantzak argitu eta TEK Eibarren izena emateko

**www.tekeibar.eus/eu/
info@tekeibar.eus
900 859 695**

Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jasangarritasun Departamentuaren eta Next Generation europar funtsen lankidetzari esker sortu berri den Eibar TEK Tokiko Energia Komunitatean parte hartzeko izen-ematea zabaltzearekin batera, herritarrei informazioa emateko bi saio egin ditu Udalak aste honetan, eta hirugarren bat egingo du martitzenean, merkatarientzat propio. Komunitate energetiko horrek bertoko energia berriztagarria sortuko du, udal eraikinen teilatuen gainazalengan instalatutako plaka fotovoltaikoen bidez, eta komunitateko kide egiten diren herritarrek horretaz gozatzeko aukera izango dute, faktura elektri-

koa murriztuz. Gure herrian, energia-autokontsumoko komunitatea osatu ahal izateko, 246 erabiltzaile inguruk eman behar dute izena, eta horregatik ari dira kideak erakarri nahiean. Dena ondo bidean, autokontsumo kolektiboa uztaila/abuztua bitartean aktibatzeke moduan izango dira. Komunitateko kideentzat abantaila eta onura ugari dauzkan proiektua dela nabarmendu dute arduradunek: “Panel fotovoltaikoak eraikin publikoen teilatuetan (Amañako eta Arrateko Andra Mari herri ikastetxeetan eta Portalean) jarri dira. Beraz, kideek ez dute beraien etxean instalaziorik egin behar, baina kontsumituko duten elektrizitate guztia %100 berriztagarria izango da”.



Eguzki-plakak norberaren teiltuan egongo balira bezala erabili daitezke energia, aparteko inbertsiorik egin barik. Eibar TEKen sartzeko izena eman eta hileroko kuota ordaindu, ez da besterik egin behar.



Hasierako ekarpena

- Bazkideek hasieran **gehienez ere 50 euroko ekarpena** egingo dute, komunitateak jarduera hasteko diru nahikoa duela ziurtatzeko.
- Proiektuaren martxaren eta TEKak duen altxortegiaren arabera, hasierako ekarpena bazkideei itzuli ahalko zaie.
- Autokontsumoa aktibatuta baino lehen, baxa emanez gero, ekarpen horren %100 itzuliko zaie.
- Behin autokontsumoa aktibatuta baxa emanez gero, ekarpen horren %50 itzuliko zaie, bi urteren buruan.

Hileko kuota

- Inolaz ere **ez da hilean 9 eurotik gorakoa izango** (BEZa barne).
- Merkeagoa izan daiteke, proiektuak jasotzen dituen dirulaguntzen arabera.
- TEKak instalazioa ordaindu duen 11. urtetik aurrera murriztuko da.
- 0,5 kW-ko finkatzen da, etxebizitza baten urteko batez besteko kontsumoaren %25 gutxi gorabehera.
- Kontsumoa dela-eta potentzia handiagoa eskatzen duten saltokiei igoko zaie kuota hori.



Urteko Batzarra egin du aste honetan ...eta kitto! Euskara Elkarteak

Martitzenean elkartearen egoitzan egindako Urteko Batzar Nagusian aurkeztu zituen elkarteak iazko balorazioa eta balantzea eta 2024rako proposamena eta aurrekontua. Horrez gain, bazkide-kuotetan ez da aldaketatik egongo: 5 eurokoa da 16 urtetik beherakoentzat; 20 eurokoa langabetu, ikasle eta jubilatuentzat; eta 50 eurokoa lanean ari direnentzat. Bazkide-kuota urtean behin ordaintzen da. Eta zuzendaritzarako proposamena onartuta, horrela osatuta geratu da: presidentea, Ekaitz Juaristi; presidente ordea, Gorka Guenaga; idazkaria, Mainer Aranberri; diruzaina, Marisol Uriarte; eta bokalak, Ana Aizpurua, Julian Fernandez, Ainara Lavado, Ane Lizarralde, Jon Mardaras, Anartz Mitxelena, Jon Mikel Mugica eta Iraia Muñoa.



...eta kitto!-k bat egin du aurten ere Zaporeak-en proiektuarekin

Martxoaren 18tik 23ra, eskualdeko gainerako herrialdeetan egingo den bezala, Eibarren ere elikagaiak bilduko dira Greziako errefuxiatu-gunetara bidaltzeko. Gure herrian dilista pardina bilduko da eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak bilgune izango da aurten ere. Dilistak elkarteak laga nahi izanez gero, ekarri bulegora astelehenetik barixakura (Urkizu 11 solairuartea) 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.



Uxue Alberdi izan da Harixa Emoten saioan

“Belarriko kilkerra” ipuin-liburuarekin etorri da aste honetan Eibarrrera idazle elgoibartarra. Harixa Emoten literatur taldeko kideek liburu hori irakurri dute eta horren gainean jardun zuten, ordubetez, Ainhoa Aldazabalen gidaritzapean.



Irundik Baionarat
2024ko martxoaren 14tik 24ra



*...eta kitto! Euskara Elkarteak
lekukoa hartzeko prest!
Gurekin bat egin nahi duzu?*



Aguiñaspi tabernatik (Urkizu) Karmelitetara. 1.522 Km



Martxoaren 20an, eguaztena



10:47an (15 minutu lehenago bertaratu)

Korrika harro egiten duen herria

“Harro herri korrika”, dio Maite Arroitauregi ‘Mursego’-k Korrikaren 23. ediziorako sortu duen abestiak. Hori da gurea, korrika harro egiten duen herria, harro bere hizkuntzan, harro munduan. Eibartarroi eguaztenean tokatuko zaigu korrika egitea, hilaren 20an, gure ahotsa eta pausoak Euskal Herri osoan eta haratago entzun daitezten.



Goizeko 10:30 inguruan sartuko da Korrika Eibarren. Ermutik iritsiko da herrira (Zaldibarretik, zehazki) eta Ipuruatik pasa eta erdigunera jaitsi ondoren, pare bat buelta emango ditu bertan, ohiko lez, gero Bidebarrieta kalea hartu, Urkizura eta herriaren ekialdera jo eta Maltzagatik Soraluzera joateko. Gero, berriz itzuliko da Maltzagara, Eibarko lurraldera, eta beste pare bat taldek eramango dute lekukoa, azkenean Elgoibarren sartzeko.

Horrela ikusita, aurreko edizioko ibilbide bera jarraituko du aurten Korrikak. Espero dugu, baina, gauza bat aldatzea: eguraldia. 2022ko edizioan euriarekin, hotzarekin eta txingorreakin jaso zuen Korrika Eibarrek, baina aurtengoan eguraldiaren aurreikuspenak hobeak direla dirudi, tenperaturari dagokionez behintzat.

Eguraldia lagun ala ez, jai-giro betean jasoko du herriak Korrika. Ekimen berezia da euskaldunontzat eta, noski, eibartarren bihotzean ere toki berezia du.

49 lekuko

Uni Eibar-Ermuak eramango du lehen lekukoa Eibarren. Bere egoitza parean hartuko du lekukoa eta Otaola kaleko 28. zenbakiraino



Aurreko edizioko ibilbide bera jarraituko du aurten Korrikak Eibarren. KORRIKA

eramango du 'Bertako igogailuak'-i emateko. Ondoren, Hizkuntza Eskolakoan, Amañako Jai Batzordekoan, EPA/HHI-koen eta Armeria Eskolakoan txanda iritsiko da Ipuruako kiroldegira igo aurretik. Han Urbatek hartuko du lekukoa, gero UEUri emateko.

Momentu berezia biziko dugu ondoren, hainbat urtetan AEK-ko irakasle izan den eta euskaltzale amorratua den Kontxa Laspiurrek eramango baitu lekukoa bere jaiotzaren mendeurrena ospatzen duen urtean.

Laspiurrek SD Eibarren ordezkarietara eman die lekukoa eta hauek Eibar BHI-koei, Ipuruatik jaisten hasteko. Beherakoan, Josu Egi-gurenen lagunek, AEK-koek eta LAB-ekoek eramango dute lekukoa, Txoko tabernaren parean Gazte Mugimendukoek hartzeko.

Erdialdean egingo duten lehen itzulian Sor-

Korrika eguzten goizean sartuko da Eibarren, 10:30 inguruan, eta bi buelta emango ditu erdialdean

tuk, aurtengo Korrikaren abestia sortu duen Maite Arroitauregi 'Mursego'-k, KAXAk, Astixak, Arrate Kultur Elkartek, Aspe Pelotak, Klub Deportiboak, Eibar Rugby Taldeak, Udaleko Langileek eta Uliazpik egingo dute korrika herriko jendearen aurrean, berriz ere Txoko parean EH Bilduk lekukoa hartzeko.

Bigarren itzuli horretan Sarek, Etxeratek, Gure Esku Dagok eta Mogel ikastolako gurasoek eramango dute lekukoa, eta Bidebarrietan

Jarraitu Korrika **zuzenean** Hamaika telebistan
www.hamaika.eus/23korrika

Deskargatu
 zure kilometroa

Bideoa bidaliko dizugu
 prest dagoenean!

hamaika



Eibarko Gazte Mugimenduak Korrika Eguna ospatzeko egitaraua prestatu du biharko

behera Mogel ikastolak, San Andres eskolak, San Andres eskolako gurasoek eta Eibar BHI-ko gurasoek.

Dendarien elkarteak hartuko du lekukoa Urkizun sartzean, eta beherakoan ...eta kitto! Euskara Elkarteak, Eibarren Akebaik, Aldatze ikastetxeko gurasoek, Aldatze ikastetxeko irakasleek, Urkizu eskolako gurasoek, Eibarko Udalak, Naluak, Eibarko Baso Biziak, Kirolbetek, Legarreko Jai Batzordeak, Laboral Kutxak eta Eibarko Suhiltzaileek. Hauek Delteco zegoen tokian hartuko dute, Maltzagan, eta handik Soraluzera joko du Korrikak. Tarte horretan PSE-EEK, Elkarrekin Podemosek eta Euskotreneko langileek eramango dute lekukoa.

Soraluzera joan eta gero, berriz itzuliko da Korrika Eibarko eremura, gero Elgoibarrera

Korrikaren inguruko
informazio gehiago



joateko, eta tarte horretan Teknikerrek, Codesyntaxek, Danobatek eta Ekingune elkarte-koek emango diote amaiera Korrikak Eibartik egingo duen ibilbideari.

Korrika Kulturala

Korrika Eibarrera etorri aurretik eta ondoren, hainbat ekintza egingo dituzte Korrika Kulturalaren barruan. Horrela, gaur bertan, hilaren 15ean, Kantu afaria egingo da Kultun, 21:00etan. Arrate Kultur Elkarteko bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 20 euro. Txartelak Kultun daude salgai.

Biharko, Eibarko Gazte Mugimenduak egun osoko egitaraua prestatu du Korrika Eguna ospatzeko. 13:00etan hitzaldia eskainiko dute Plaza Barrian eta arratsaldean musikak hartuko du lekukoa. 19:30ean kantupoteoa egingo da eta 21:30ean gaztetxeko atea irekiko dituzte Slide (22:00etan), Emajon erromeria (23:30ean) eta DJ Maurizia (01:30ean) musikariaren kontzertuak jasotzeko.

Hurrengo egunean, hilaren 17an, buruz buruko pilota finalaurrekoa jokatuko da Astelena frontoian, eta Korrikako arduradunek argazki ofiziala egingo dute bertan.

Martitzenean, egun handiaren bezperan, herriko ikastetxeetako umeak kalera irtengo dira 15:15ean Korrika Txikia egiteko. Herriko kaleak zeharkatu ondoren, ekintzak Untzagan izango du amaiera (euria egingo balu, Errebalen).

Eguenean, hilaren 21ean, Badon antzezlanaren eskainiko dute Coliseo antzokian, 19:00etan.

Baionan Korrikaren amaiera ikusteko autobusak antolatu dituzte hilaren 24rako. Autobusak Ego Gainetik irtengo dira 09:00etan eta 15 euro ordaindu beharko da joan-etorrikoa egiteko



Aldizkari honen 29. orrialdean duzue ikuski-zunari buruzko informazio gehiago.

Hilaren 22an, 23an eta 24an '17. logela' izeneko ihes-gela ibiltaria iritsiko da Untzagara, Euskaraz barra-barra (e//) kanpainaren barruan. Ekintza horrek 40 minutuko iraupena du eta www.euskarazbarrabarra.eus/ihes-gela webgunean eman behar da izena parte hartu ahal izateko.

Korrikaren inguruko ekintzekin amaitzeko, zer hoberik Baionan Korrikaren amaiera ikustea baino? Horretarako, autobusak jarriko dituzte Ego Gainetik. 09:00etan irtengo dira eta joan-etorriko bidaiak 15 euroko prezioa du. Izena emateko 688 74 66 34 zenbakira WhatsApp bitartez mezua bidali beharko da.



Korrika pasatu baino egun bat lehenago egingo da Korrika Txikia Eibarko kaleetan zehar. EKHI BELAR

23.korrika

**HARRO
ERRI**

Irundik Baionaratz
2024ko martxoaren 14tik 24ra

KORRIKArekin bat eginez

**UNI
EIBAR
ERMUA**

aurten ere
KORRIKArekin

23.korrika

**HARRO
ERRI**

HITZEKIN

Eibarren
AKEBAI **euskarari
ekin**

“Gora Korrika eta gora euskera”

Berba horiekin agurtu zigun Kontxa Laspiurrek elkarrizketa amaitu genuenean. Bizitza osoan zehar egin duen bezala, 99 urterekin ere indartsu egin jarraitzen du euskararen alde; eta, hainbat urtetan AEK-ko irakasle izanik, bihotzean darama Korrika. Aurten, lekukoa eramango du Ipuruan, bere etxe parean, eta herritarron esker ona eta beroa jasotzeko aukera izango du.

Bere jaiotzaren mendeurrena betetzen den honetan, Kontxa Laspiurrek zenbait omenaldi jaso ditu. Ondo merezitakoak gainera, lan eskerga egin baitu euskararen alde. Orain, Korrika maitea bere herri maite-tik pasatzen denean, herriaren eta euskaltzaleen esker ona jasoko du, eta lekukoa eramango du Korrika Santaines kaletik pasatzen denean. “Lehelengo aldiz Arantzazun eruan neban. Orduan, bigarren aldiz noia eruatera”, esan digu. “Emoziñua sentitzen dot”.

Kontxa aspaldi bizi da Santaines kaleko 10. zenbakian, baina Bergaran jaio zen. 4 urterekin etorri zen Eibarrera eta, 1989. urteko elkarrizketa batean esan zigun bezala, “ez neuke Eibar kanbixatuko beste herriategaittik”. Hori bai, aldatuta ikusten duen herria da Eibar. “Lehengogunian kalera irten nintzan bai eta, hau Eibar da? Hau ez

da nere Eibar!”, pentsatu neban. Eta gero, erderia entzun neban asko. Ohhh”, esan digu penaz. Dena dela, berba itzaropentsuak ere baditu Kontxak: “Euskera extranjeruek salbatuko dabe. Euskaldunok jaten laga dogu, zapaldu egin gaittue”.

Diktaduran euskara irakasle

Kontxak jaio zen momentutik jaso zuen euskararekiko maitasuna. “Geure famelixan danok izan gara euskararen alde egin dogunak”, kontatu digu. “Gure etxera lagunak be ez zeben etorri nahi. ‘En tu casa hay que hablar en euskera’, esaten zeskuen, eta portalian gelditzen ziran”, gogoratzen du.

Kontxak bezala, Imanol anaiak ere euskararen sustapenari eskaini zion bizitza eta bide horretan arrebak lerroan jartzen zituela gogoratzen du Kontxak. “Hemen egin zanian lehelengo euskal-eskolia, mendixan, Eztixan, dirua

batu bihar zan eta haietariko bat zein izango zan ba, eta Imanolen arrebia”, kontatu digu. Izan ere, Kontxak jende asko ezagutzen zuen fabriketan egindako lanaren ondorioz. “Lehelengo, Beistegiñian zazpi urte egon nintzan, nikelian. Orduan, gehixago eskaiñi zesten eta Orbeanera jua nintzan, eta beste zazpi urte egin nittuan Orbeanian, nikelian. Bestetik deittu egin zesten barriro, baiña ez, konforme neguan hor”, gogoratzen du.

Tailerreko lanaren ondoren, Javier Zubiaurrek eskaintza berezia egin zion: euskarazko klaseak ematea. Kontxak onartu egin zuen eta beste pare bat lagunekin batera (“Zabaleta, Amatiño...”) euskarazko irakasle hasi zen.

Sasoi hartan, Kontxak 40 urte inguru zituen, 1960. hamarkada zen, Francoren diktaduraren sasoi eta, testuinguru horretan, berrogei lagun ingururi hasi zen euskarazko





Kontxa Laspiurrek Korrikaren lekukoa eramango du Ipuruan. YANIRE SAGREDO

klaseak ematen. Berak Jose Antonio izeneko nafar bat gogoratzen du: “Harek ikasi zeban fenomeno, eta Eibarren gelditu zan eta taillarra ipiñi zeban. Amañan daka taillarra”.

Hasieran, Klub Deportiboan ematen zituzten euskarazko klaseak. “Izkutuan, goixan, geletan”, azaldu digu Kontxak. “Orduan debekatuta zeuan euskaria”, gogoratzen du, eta bisitaren bat edo beste izan zuten. “¿Qué hace usted aquí?”, esan omen zion bertaratu zen batek. “Doy euskera”, erantzun zion Kontxak. “¿Solo?”, besteak, eta Kontxak: “¿Qué quiere usted que dé más? El castellano ya lo saben todos”. “¿Ya me enseñaría usted a mí?”, besteak, eta Laspiurren erantzuna: “Siéntese ahí donde los chavales y ya le enseñaré”.

Kontxa ez da poliziaren aurrean ere isilik gelditzen edo kikitzen den horietako bat eta, bestela, esan diezatela orain dela gutxi gazteleraz artatu zuten ertzainei. Ederrak en-

>>> “Geure famelixan danok izan gara euskararen alde egin dogunak”

tzun behar izan zituzten Kontxaren ahotik. “Euskadin bizi bagara, polizia euskalduna euki biharko genduke”, esan zien, hemen idaztea hobe ez den beste berba batzuen artean.

Sasoiak sasoi, Kontxak inoiz ez du beldurrik izan euskaraz egiteagatik. “Ez jatan ardura. Danian esaten neban euskalduna nintzala eta euskaraz ibili bihar nintzala, beste zerik ez nekan”, esan digu tinko.

AEK-ren sorrera

Klaseak ematen hasi ondoren, Imanol anaiak esanda, gau eskolan euskara irakasten hasi zen, eta gero AEK sortu zen. “Ahizta bixok lehelena izan giñan AEK-n, eta jubilau arte AEK-n jarraitu genduan”, diosku Kontxak. “AEK-n sartu nintzanean oso pozik neuan, zegait-

tik jende barrixa ezagutu neban”, gogoratzen du. Orduan, gainera, ez zegoen euskara baturik, “baiña laister hasi zan euskara batua eta Imanolek erakutsi zeskuan. Oin popurri berba egitten dot, saltoka. Eskoriatzako euskaria ondo dakitt (ama hangua zalako), Bergarakua be (aita bertakua zalako) eta Eibar-kua bebai (eibartarra naizelako)”.

Kontxak esan digunez, Euskal Herriko toki askotatik etortzen zen jendea eskolak ematera eta gauean joan egiten ziren. “Ordu pilla bat eman genduan bertan. Nik neukan hiru talde: goizian bat eta bi arratsaldian. Azkeneko klasia 20:00etatik 22:00etara emoten neban, taillarretik urtetzen zan jendiari. Auskalo noiz juaten nintzan etxera”, gogoratzen du. Eta ez hori

>>> **"Lehelengo aldiz Arantzazun eruan neban. Orduan, bigarren aldiz noia eruatera. Emoziñua sentitzen dot"**

>>> **"Danian esaten neban euskalduna nintzala eta euskaraz ibili bihar nintzala, beste zerik ez nekan"**

bakarrrik: "Katekistia be izan nintzan eta behin, batzar batera juan nintzanean, hor zeren abade bixak puruakin. 'Ni merienda egin barik, hamen nago eguardittik etorritta', esan netsen. 'Dirurik ez da gorde bihar, pobrieri eman bihar jakue. Bilboko obispuak dana gastatzen dau Gabonetan, gauza eder bat egin eta gelditzen dana pobrieri emon', esan zesten. Eta guk esan zetsagun: 'Harek afaltzen jaten zeban dan-dana, guk urtian jaten dogu'. Abadiekin bebai sekulako disku-siñuak euki dittut".

Lanegunak luzeak izaten ziren Kontxarentzat, baina berak beti izan du euskara irakasteko energia hori. "Ume-umetatik", berre-



99 urtez euskarari eman dio bizitza Kontxa Laspiurrek. YANIRE SAGREDO

tsi digu. Eta horrela, jubilatute arte. "Beti egon naiz biharrian eta neure gogoz kontra jubilatute bihar izan nintzan", aitortu digu.

Euskara irakasteko bide horretan ezerk ez du gelditu, ez gerrak (Eibar, Gernika, Bilbo... bonbardaketa askoren lekuko izan da), ez diktadurak, ezta euskara zapaltzeko ahalegin guztiek ere, eta

orain, 100 urte betetzeko atarian, indartsu jarraitzen du, Korrikaren lekukoa eramateko prest eta ilusioz, eta euskararen alde jarraitzeko grinarekin.

Emozioz begiratzen dio ikurriña duen Korrikaren lekukoari eta bihotza pizten zaio. "Zelako kolore edarrak. Banderarik polittiena da", ateratzen zaio barrenetik.



“Euskarak bizi duen egoera kontuan hartuta, indar berezia izango du aurtengo Korrikak”

MAITE ARROITAJAUREGI ‘MURSEGO’ • Musikaria



Maite Arroita Jauregi sortutako doinuen erritmora egingo dugu korrika aurtan. Azken urteotan eszenatoki gainean eta zinearen munduan arrakasta eta errekonozimendua lortu ondoren, Mursego arduratu da Korrikaren 23. edizioaren soinu-bandaz.

Hainbat bidelagun izan ditu Maite Arroita Jauregik Korrikaren abesti ofiziala egiteko eta, bere hitzetan, “pop-barroko” estiloko lana sortu du. “Harro herri korrika, harro herri korrika...”, ziur aste hauetan burutik kendu ezin izango ditugun letrak eta doinuak izango direla, euskal gizartearen eta Korrikaren historiarako geratuko direnak.

Euskaldunontzat garrantzia berezia duen ekimena da Korrika. Zer sentitu duzu abestia sortzeko orduan?

Hasieran, AEK-tik Korrikaren abestia egiteko enkargua jaso nuenean, ilusioa egin zidan, baina ez nion buelta gehiegirik eman. Gero, etxera etorri ziren nahi zutena azaltzera eta, data urruti ikusten nuenez, “ze ondo” eta abar, pentsatu nuen. Ondoren, ostera, data hurbiltzen joan zen eta sortze-prozesuaren hasieran nahiko blokeatuta egon nintzen.

Zergatik?

Korrikaren abestia egitea erantzukizun handia da. Izan ere, jende askok hartzen du parte, karga emozional handia du, gure hizkuntza da, Euskal Herri osoan egiten da, jendea herri txikietan antxintxiketan imajinatzen dut... Orduan, probak egiten hasi nintzen, baina ez

nuen asmatzen. Gauza batzuk oso Mursego ziren, eta gero zerbait modernoa egiten saiatu nintzen, ekoizpen berritzaileago batekin, baina ikusten nuen hori ez zela nire estiloa edo ez nuela kontrolatzen, ez nintzela eroso sentitzen horrekin. Hasieratik pentsatu nuen Kau Kori Kura taldeko Mikel Aizpuruarekin egitea eta, berarekin elkartzen hasi nintzenean, konbentzitu zidan kantu pop elegantea egin behar nuela, estribillo itsaskor batekin. Txipa aldatu eta “hori da” pentsatu nuen.

Nolakoa izan zen sorkuntza-prozesu hori?

Melodia batzuk sortu nituen, osatu genituen, egitura ezarri genuen eta buelta asko eman genion horri. Gero, Harmonikoki zer izango zen erabaki ondoren, Ibon RG hasi zen ekoizle lanetan. Poliki-poliki eraikitzen joan den kantua izan da. Gitarrarekin edo pianoarekin jo dezakezun kantu xume batetik hasi zen eta, gutxikagutxika gero eta moldaketa gehiago egiten joan ginen, konturatu ginen arte, gure gustuak ikusita, ‘pop-barroko’ estiloko kantua joko genuela. The Beach Boys taldearen ‘Pet sounds’ diskoa erreferente handia izan da, eta baita euren ekoizle izan zen Phil Spector ere. Bere lan egiteko eta teknikak irakurtzeko moduak azpimarratuko nituzke. ‘Wall of sound’ (soinu-horma) terminoa asmatu zuen. Hau da, musika-tresna ezberdin askok



Musika Eskolako ikasleekin batera aurkeztu zuen Mursegok Korrikaren abestia. KORRIKA

gauza bera egitea eta 'reberrekin' eta gauza teknikoekin jolastea, soinu berezi bat sortzeko. 60. hamarkadako doinu horiek izan ziren gure erreferenteak, 'pop-barroko' hori. Horrela, nire lan egiteko modua irudikatzen da. Izan ere, pop kantu xumea moldaketa klasikoekin uztartzen da. Azken batean mundu klasikitik nator eta zinerako musika lantzen ohituta nago, nahiz eta horretan ez daramadan denbora gehiegi.

Zer aipatuko zenuke instrumentazioari buruz?

Kantu rock-pop baten instrumentaziotik hasten gara (gitarra, baxua, bateria, teklatura eta ahotsak), eta gero tronboia, flauta, bibolinak, txeloa, perkusioa, txindatak,

“Pop kantu xumea moldaketa klasikoekin uztartzen da Korrikaren abestian”

tinbala, klabea, gitarra ezberdinak... sartzen dira. Eta, ahotsari dagokionez, egitura dago, melodia, eta gero pila bat ahots-joko. Ahots asko dago, oso korala da.

Korala da entzuten dena, baina sorkuntza ere korala izan da, ezta?



Abestiaren
BIDEOKLIPA



Bai, horrela izatea eskatu zuten. Parekidea izan zedin eskatu zidaten eta, era berean, ahal izanez gero, Euskal Herriko zazpi probintzietako jendeak parte hartzea. Korala da instrumentista askok hartu dutelako parte, ahotsa ere hainbat lagunek jarri dugulako... Ahotsa eta instrumentuak sartzeko, adibidez, Ibil Bedi talde nafarreko lagunak etorri ziren. Iruñean gertatzen ari dena oso esanguratsua da. Orain loratzea dago, baina urte batzuk atzera begira ez dira hainbeste euskal talde egon. Ibil Bedi asko gustatzen zait eta niretzat garrantzitsua zen eurek parte hartzea. Gero, Marie Hirigoyen (flauta eta ahotsak), Patxix eta euren seme-alabak etorri ziren Lapurditik. Horrela, Euskal Herriko toki ezberdinetako ordezkariak da.

Nola bizi izaten duzu Korrika?

Bizitzak baldintzatu egiten gaitu eta ahal izan dudan guztietan korrika egin dut, baina aurreko edizioan ezin izan nuen egin, adibidez. Hainbeste jende batzen denean helburu horrekin, oso hunkigarria izaten da. Gainera, euskarak gaur egun bizi duen egoera kontuan hartuta, indar berezia izango du aurtengo Korrikak.

Aurten, gainera, lekukoa eramango duzu.

Umetan lekukoa eramane nuen Korrika Txikian, eta oso zirrargarria izan zen, baina bestela aurtengoa izango da Korrikan lekukoa eramango dudanean lehen aldia. Oso hunkigarria izango da. Kantua asko kostatu zait egitea, denbora asko eman dut, lan esko egin dut eta txiribuelta asko eman ditut. Lehenik, kantua nondik jo nahi nuen aurkitzea; gero, kantua oso konplikatu delako; eta bestetik, jende asko kudeatu behar delako. Lan handia izan da, eta uste dut kantua furgonetan entzuten dudanean momentua zirrargarria izango dela.

Euskararen egoera aipatu duzu, baina zure sorkuntzetan, adibidez, oso presente dago. Zure parte delako da horrela?

Nire ama-hizkuntza da, eta espresatzeko dudanean modurik naturalena euskara da. Are gehiago zerbait publiko egiten dudanean, hau da, besteentzat.

Korrikaren soinu-banda egin duzu, baina azkeneko urteetan zinerako ere hainbat soinu-banda sortu ditu-



“Kantua sortzea lan handia izan da, eta uste dut kantua furgonetan entzuten dudanean momentua zirrargarria izango dela”

zu. Horrez gain, Mursegoren abestiak eta abar ere hor daude. Eroso sentitzen zara arlo ezberdinetan aritzen?

Azkenean, badakigu zer den sortzailea izatea Euskal Herrian. Multitaskingera jotzen duzu edo ezin zara bizi. Irakaslea naiz eta, jardunaldi murriztuan nagoenez, astean hirutan noa klaseak ematera, bestela ez dudalako denborarik izaten soinu-bandak ganoraz sortzeko. Soinu-bandena asko gustatzen zait, baina noizean behin kontzertuak irteten zaizkit eta hori ere prestatu behar izaten dut. Batzuetan nekagarria da, egia esan. Lehenengo geruzan denak dira sorkuntza ariketak, baita klaseak ematea ere, baina azkenean gauza ezberdinak dira eta, gainera, norberaren bizitzarekin uztartu behar direnez, burua beti izaten duzu bueltaka, beste askok duten bezala.

BADON: opera posdramatikoa

Badon opera posdramatikoa euskal kultura eta haren kanonak berrikustera dator. Jolasaren bitartez, etorkizun utopiko espekulatibo bat proposatzen du. Eszena sorkuntza honek esperientzia estetiko eta zentzumen bidezkoa dakarkio publikoari, denok partekatzen dugun iruditeriatik sortutako mundu posible bat.

Marina Suarez, Ines Osinaga, Oihana Vesga, Ainara Gurrutxaga, Xanti Agirrezabalaga, Amaia Castañeda, Elena Garcia, Lorea Argarate, Julene Gregorio eta Eneritz Furyak parte hartzen dute hilaren 21ean Coliseon erakutsiko duten lanean.

Bestelako euskal kanona, plaza publikoa eta genealogia ahalbidetuko duen agertokia asmatu nahi izan dute egileek. Zergatik fikziozko ariketa hori? "Bestelako kanona, plaza publikoa eta aitortza praktikan jartzea ahalbidetuko digun mundua asmatzeko beharra" sentitzen dutelako.

Errelato alternatibo eta gaurkotua sortzeko, diseinu espekulatiboarekin egin dute lan, beste mundu eta etorkizun batzuk sortzeko: aukera ezberdinak planteatuko dituzte distopia katastrofikoetatik utopia amestuetara joateko. Proposamenaren muinean hibridazioa dago, nahasketa, hackeoa. Dela erreferentzien aldetik, dela praktika artistikoen aldetik. Sorkuntza-prozesuan lanean jardun dute antzezle, dantzari, musikari, bideo-sortzaile eta diseinatzaile grafikoek, beste batzuen artean.

Badon opera posdramatikoa sortu dutenek diotenez, "gure buruak birpentsatzeko-berreraikitze ariketa da; baina, batez ere, eta denaren gainera, gure buruak ospatzeko festa handi bat".

Badon-ek Korrika Kulturalaren sorkuntza beka jaso du eta Korrika Kulturalaren baitan eskaini ditu lehen



emanaldiak. Ondoren, *Mauriziak ez dau inor hil* kooperatibak hartuko du banaketaren ardura.

Badon operak zazpi akto edo koadro ditu; opera tradizionalak duen egiturari jarraitzen dio, beraz: obertura, lehen aktoa, bigarrena, hirugarrena, interludioa, aria eta gran finalea.

Eszena sorkuntzaren lehen fasea Tabakalera arte garaikiderako zentroan gauzatu zen bi astez, 2023ko maiatzean. Bertan kontzeptualizazioa eta erreferentzia estetiko-filosofikoak landu ziren. Niessen antzokian egin zen sorkuntzaren bigarren fasea, eszenarako materiala sortzeko lehen lanetan, iazko ekainean eta uztailean.

Operaren koadro bakoitza kolore batek bilduko du, eta kolore bakoitzak mundu bat: kosmosa, landareen mundua, animaliena, gizakiena eta, azkenik, mundu espirituala. Ez dakigu zer gogorarazten digun. Teloia- ren eta lurraren arteko zulotik argia agertu da. Zerbait badator. Zerbait gerturatzen dihardu. Ekarri duzu?

IBONE ESTETIKA
euskararekin bat

21.korrika
HARRO BERRI
Hondik Baiteraz
2023ko martxoaren 18tik 20ra

R. Galdos, 10
943 20 16 01

SUMENDIXA GOIKOA S.L.

21.korrika
HARRO BERRI
Hondik Baiteraz

MAPFRE UBITXA

Sostoa, 1 943 82 04 49



SUGOI ETXARRI • EHE

Euskarak kalea behar du! Euskaldunok kalea hartu behar dugu!

Aurreko egunean, lan egiten dudan institutuan ikasle batek bota zidan: “Hamar pertsona bagaude eta batek euskaraz ez badaki, logikoa eta errespetuzkoa da gazteleraz hitz egitea”. Hitz-kate horren eta bota duen pertsonaren atzean, banan banan aztertu ezin diren hamaika bizipen zehatz daude: eguneroko elkarriketak, diskurtsoak, gertaerak, irudiak, bideoak... Eta horietan barna nagusitu den logika bat antzeman daiteke, mundua gobernatzen duen logika indibidualista eta sasi-bakezalea, alegia.

Euskal Herrian (ere) agintzen duen logika horrek berak ezkututzen ditu bi pertsonaren edo gehiagoren artean dauden botere-harremanak; klaseak, sexu-generoak, jatorriak, azal-koloreak, hizkuntzak eta abarrek eragindakoak. Horrela, denok askeak eta boterez berdinarik bagina bezala pentsatzera eraman gaituzte, gure bizipen eta ekintzen kausa zein ondorio sistemikoak ezkutatu, ikusezin bihurtuz. Nik euskaraz edo gazteleraz egin, zer axola du? Aske naiz nahi dudana egiteko. Gainera, ez dadila inor gaizki sentitu, ez dezagun inor gaizki sentiarazi. Errespetatu dezagun dena, bakoitzak egin dezala nahi duena, bakeak asko balio du...

Pentsamolde honek, bistan da, gure arteko egiturazko botere-harremanak ezkutuan uzten ditu eta itxurazko bakea ezartzen du, noski, zapaltzailearen mesedetan eta zapalduaren kaltetan. Aipatutako ikasle horri honela itzuli nion galdera: “Eta hori egiten badugu erdaldun bat dagoen guztietan, zenbatetan ahalko dugu geure hizkuntzan, euskaraz, hitz egin?”. Segundu batzuetako isiltasuna sortu zen eta beste ikasle batek horrela erantzun zidan: “Bai, baina orduan, mundu guztiak euskaraz ikasi beharko luke eta hori lortzea oso zaila da...”. Ttak, hasi ziren maila kolektiboan pentsatzen, baina jakina, egiturazkoa dena aldatzea zaila da, zailegia indibidualismoz inguratuta hazi den norbaitentzako.

Azken urtetan gero eta gehiago, ikasleek euskara eskolarekin eta arauarekin lotzen duten irudipena dut, eta erdara, kontrara,

“Urte luzetako borrokaren ondorioz euskara neurri (txiki) batean instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu”

dibertsioarekin eta askatasunarekin. Urte luzetako borrokaren ondorioz euskara neurri (txiki) batean instituzionalizatzea lortu dugun bitartean, diglosia egoera bortitzean jarraitzen dugu, baina gutxi hitz egiten da horri buruz, eskoletan, etxeetan zein kalean. Errealitate gordin hori izkutuan geratu da, indibidualismoaren eta sasi-bakearen araupean. Izan ere, Arestik zion bezala, bakeak euskarari -eta edozein talde zanpatari- kalte egiten dio.

Errealitateak, sarritan, begiratu hutsarekin ez dira ikusten, baina seinalatuz gero bai. Horregatik, nire ustez, horixe dagokigu orain; hitz gutxitan esanda, nagusitzen den maila instituzionaleko borrokari uko egin gabe, kalea berreskuratu behar dugu; lehenak bigarrena apaltzeko izaten duen joera gaindituz. Eskubide indibidualen lanketatik eta hitz neurtuetatik haratago, herri gisa ditugun ametssez, etsaiez eta askatasun kolektiboetarako bideez hitz egiteko premia dugu. Egunerokoan “normaltasun” gisa bizi ditugun egoerak desnormalizatu eta kaleak astintzeko. Eta kale horietan, behekoen askatasuna nahi duten beste mugimendu batzuekin topo egin eta indarrak batzeko.

Bizitza, hizkuntzak, herriak eta errentagarri ez zaion guztia suntsitzen dituen sistema honen eta bera irauarazten duten Estatuen aurrean, gure artean bereizi eta isolatzen gaituztenen aurrean, itxaropena kendu nahi digutenen aurrean...komunitatea lantzea da mugimendu askatzaile guztion premia bizia. Horretarako, kontzientzia hartu, elkartu, konplexu zahar-berriak gainetik kendu, taldean pentsatu eta ekin behar dugu. Tokian toki, ahal den eremu guztietan erein, borrokak piztu, eragin. Bakarrik ezin dugu, lagunekin bai.

Astindu berri bat behar du gure hizkuntzak eta komunitateak. Apirilaren 22tik 28ra izanen dugun Euskaldunon Harrotze Asteak horretarako aukera bat eskainiko digu, inflexio puntu bat, elkar motibatu eta ahalduntzeko. Kolektiboki harrotzeko ariketa bat izanen da, parte hartu nahi duten euskaltzale guztiei irekia.

Gure institutuko ikasleek, beste guztiok bezala, egoeraren kontziente izateko eta askatzailea den komunitate baten parte aktibo izateko eskubidea dutelako, eman diezaiozun euskarari kalea!

“Eskubide indibidualen lanketatik eta hitz neurtuetatik haratago, herri gisa ditugun ametssez, etsaiez eta askatasun kolektiboetarako bideez hitz egiteko premia dugu”

Sarrera guztiak agortuta Astelenako etziko pilota jaialdirako

Eibarko Katedrala bosgarren aldiz beteko da denboraldi honetan domekarako antolatutako jaialdian. Aurretik ere Gabon sasoiaren antolatutako hiru jaialdietan eta ondorengo urtarrilaren 21ekoan ere sarrera guztiak agortu ziren, eta mila lagunetik gora izan ziren pilota partiduak jarraitzen. Bihar goizeko 11:00etan egingo da jaialdiko partidu nagusia jokatu duten pilotarien arteko pilota aukeraketa saioa.

Bertako partidu nagusiak pilotazaleen interes guztia hartu du bere gain, jokoan izango delako binakako txapelketa nagusiaren bigarren finalistaren izena erabakitzea. Baiko enpresako Artola-Imaz eta Aspeko Altuna-Martija bikoteen artekoak erabakiko du zeinek jokatu duen handik hamabostera Navarra Arenal izango den finala. Aspe enpre-



Binakako txapelketako bikoteak eguazteneko Astelenan egindako pilota-aukeraketan.

sako Peio Etxeberria eta Zabaleta dira beste finalistak.

Jaialdiko lehenengoko partidua ere ez da nolana hikoia izango, bi enpresen arteko beste lehia batekin:

Aspeko Elordi-Tolosa eta Baikoko Urrutikoetxea-Aranguren izango dira, nor baino nor. Eta Exposito-Erostarbe eta Senar-Lizeaga bikoteen artekoak itxiko du jaialdia.



Silvia Trigueros mendi lasterkaria lagun izango dute Negutrailean etzi

Klub Deportiboak antolatzen dituen Mendi Jardunaldietako azken aktibitate bezala, Kalamuako Korrikalari Taldeak Silvia Trigueros gonbidatu du Negutrailean parte hartzeko. Trail irteera hori Kalamua aldetik egingo dute, eta ibilbidean zehar geldialdi batzuk egingo dituzte, "Silviari galderak egiteko eta bere esperientzia gurekin partekatzeko". Goizeko 08:30ean abiatuko dira Depor aurretik eta hiru bat ordutan egiteko moduko 16 kilometroak osatuko dituzte jarraian, erraza bezala kalifikatutako ibilaldian. Goranzko metatua 785 metrokoa da eta izena kalamuakorrikalaritaldea@gmail.com helbidean eman daiteke. Ondorengo materiala eramatea gomendatzen

dute antolatzaileek: korrika egiteko oinetakoak, mugikorra, zira, ura eta jateko zerbait.

Silvia Trigueros Abadiñon bizi den mendi-lasterkari barakaldoarrrak palmares ikaragarria du mendietako probetan. Hirutan irabazi ditu G2H (88 km), Ehunmilak (168 km), Trail Des Citadelles (73 km) eta Tor des Géants (330 km), 2017ko Basque Ultra Trail Serieseko lau probetatik hiru bereganatzeaz aparte. Aurrekoez gain, 2021ean 100 miglia del Monviso (166 km), 2022an Cervino Matterhorn Ultra Race (168 km) eta 2023an Ultra Trail del Lago di Como UTLAC (258 km) probak poltsikoratu zituen. Interesgarria izango dira bere ekarpenak.

Bihar hasiko da 53. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketa Azkoitiko Floreaga bolatokian

Azkoitiko Floreaga bolatokiak hartuko du zapatu honetan 53. Gipuzkoako Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketaren lehenengoko tiraldia. Guztira 10 jardunaldi izango ditu txapelketak, urterokoari jarraituz Lehendakari Sariarekin amaituko dena. Egutegia honako hau izango da: martxoaren 16an, Azkoitiko Floreaga; martxoaren 23an, Elgoibarko San Miguel; apirilaren 6an, Elgeta; apirilaren 13an, Aretxabaleta; apirilaren 20an, Eibarko Asola Berri; apirilaren 27an, Leintz-Gatzaga; maiatzaren 4an, Soraluzeko Ezoz; maiatzaren 11n, Soraluzeko San An-

dres; maiatzaren 18an, Elgoibarko San Pedro; eta maiatzaren 25ean, Bergarako San Joxepe. Lehendakari Saria Itziarko Lasturren jokatu dute ekainaren 1ean, 12:00etatik aurrera; egun horretan, gainera, parretakoak ere erabakitzen dira. Bestelako jardunaldi guztiak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira eta, zapatuko tiraldietatik aparte, bezperan (barixakuetan) beste tiraldi bat izango da hainbat bolatokitan (Azkoitia, Elgoibar, Elgeta, Eibar eta Bergara), 23:00etatik aurrera. Hortik aparte, edozer gertatuta ere, Elgetakoa izango da ordezko bolatokia.



JAZeko sei kidek hartu zuten parte sprint distantziako Sopolako duatloian

Eibarko Triatloi Taldeko sei kide izan ziren parte hartzen sprint distantziako Sopolako duatloian, lan bikaina eginez gainera, taldekako sailkapenean merezimenduzko laugarren postuan geratzeraino. Seikotean Pablo Zabala nabarmendu

zen beste behin, bosgarren postuan amaitu baitzuen proba. JAZ Eibar Triatloiko beste bostak honela sailkatu ziren: Alex Higuera (24), Ugaitz Gartzia (32), Andoni Mayo (50), Roberto Gartzia (54) eta Javi Muñoz (94).

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Real Madrid - EIBAR (bihar, 20:00)

Gipuzkoen 2. Maila

EIBAR - Villarreal B (bihar, 16:15)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - San Ignacio (bihar, 15:30)

Gipuzkoen 3. Maila RFEF

Basconia - VITORIA (etzi, 11:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR C - Lakua (etzi, 16:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila

EIBAR URKO - Beasain B (bihar, 18:00)

Erregionaleko Gorengo Maila

Aloña Mendi - URKI (etzi, 16:30)

Erregionaleko 1. Maila

Idiazabal - EIBARTARRAK (bihar, 16:30)

FOBALL-ZALETUA

- Malape - Xania (bihar, 09:00)

- Marem - Limpieza Rueda (bihar, 10:30)

- Baserri - BOJ (etzi, 09:00)

- Garajes Garcia - Gastro Gilda (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gipuzkoako 3. Maila

EIBARTARRAK - Janrablue Futsal (bihar, 17:00)

ESKUBALOA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

San Adrian - MEK EIBAR (bihar, 17:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

MEK EIBAR B - Sidenor Basauri (etzi, 11:45)

Gipuzkoen Lurrealdeko Liga

Aritzbatalde - MEK EIBAR B (bihar, 15:30)

FRRUGBIA

Emakumezkoen Ohorezko Liga

Corteva Cocos - EIBAR (etzi, 11:00)

Gipuzkoen Euskadiko Erregionala

Envases Rioja - EIBAR (bihar, 15:30)

SASKIBALOA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Ganboa Hoops - EIBAR (bihar, 18:00)

WATERPOLOA

Gipuzkoen 2. Maila Nazionala

Waterpolo Malaga - URBAT (etzi, 16:00)

Gipuzkoen Euskal Herriko Liga

URBAT B - CN Easwim (gaur, 21:30)

Emakumezkoen Euskal Herriko Liga

ADW Santoña - URBIAK (bihar, 19:45)

PILOTA

Astelena (etzi, 17:00)

Urrutikoetxea-Aranguren vs Elordi-Tolosa

Artola-Imaz vs Altuna-Martija

Exposito-Erostarbe vs Senar-Lizeaga

GI MNASIA ERRITMIKOA

Gipuzkoako Txapelketa (Azpeitia)

IPURUAko Amateurrak



Deporreko Garikoitz Iruretagoienak Euskadiko Apnea Txapela jantzi zuen

Klub Deportiboaren Ehungarren urteurrena ospatzen diharduten honetan, Urpekaritza batzordekoek gurera ekarri dute lehenengo aldiz Euskadiko Apnea Txapelketa. Ipuruako kiroldegiak hartu zuen aurreko zapatuan egun osoko ekitaldia eta 22 apneista izan ziren guztira parte hartzen, 15 gizonetzko eta 7 emakumezko. Goizeko 11:00etan elkartu ziren apneistak, epaileak eta laguntzaileak, nondik norakoak zehazteko, eta txapelketa bera 13:45ean hasi zen, 20:30 bueltan amaitzeko. Hori bai, sari-banaketa ekitaldia Klub Deportiboan egin zen. Emaitzei begira, Garikoitz Iruretagoienak eta Eider Gutierrezek jantzi zituzten txapelak; Iruretagoiena, gainera, Eibarko Klub Deportiboko Urpekaritza batzordekoa da.

Urbateko lehenengo taldea lider da bere mailako bigarren faseko sailkapenean

2. Maila Nazionalaren sailkapeneko erdialdetik atzera geratu ziren taldeekin osatutako multzoaren lidergoan dugu Urbat waterpoloko talde nagusia, azken jardunaldian Colegio Brains taldeari Donostiako Paco Yoldi igerilekuan 16-10 irabazi eta gero. Igoberria den Eibarko taldeak momentuz arazo handirik gabe eusten dio mailari eta, une honetan, gorenean dago Waterpolo Malagarekin berdinduta. Hiru puntura dago Dos Hermanas, seira daude Brains eta Chiclana, eta atzerago aurkitzen dira Alcorcon, Elx eta Tres Cantos.

Euskal Herriko Ligaren barruan jokatzeko diharduten Urbateko se-

nior mailako beste bi taldeek, bes-talde, galdu egin zuten azken aste-buruan. Emakumezkoen Urbiak taldeak 5-3 amore eman zuen Portugaleten, eta gizonezkoen B taldeak askoz argiago galdu zuen Waterpolo Donostiaren aurrean (19-6).

Infantil mistoetan, hiru partidu jokatu zituzten gure herriko gazteek. Urbat Gorriak taldeak 7-9 gairitu zuen WP Navarra eta 10-16 galdu Askaratz A-rekin, Urbat Beltzak 7-12 Larraina gairidituen zuen bitartean Iruñean. Eskola mailako partiduan, azkenik, Urbatek 0-4 irabazi zion Urgara Txingudiri Irunen, egindako jokoa progresioa erakustearekin batera.



Gure herriko xake taldeak iguera faseari ekingo dio asteburu honetan

Probintziako 2. Mailan jokatzeko duen Eibarko Klub Deportiboko xake taldeak Gros K taldea hartuko du etxean iguera fasearen hasieran, lehenengo fasea lidergoan amaitu eta gero. Orain dela bi aste Gros J-ri Donostian 1-3 irabazi zioten, Diego Olmok, Joan Aranak eta Xabier Beorlegik eskuratutako garaipenei

esker; Diogo Valek bere partida galdu zuen. Eibarko taldea lider da, 10 puntu eta erdirekin, eta atzetik ditu Taula A, bederatzi eta erdirekin, eta Zaleak eta Beraun-Bera B, bederatzirekin. Multzoko beste aurkariak Bergara A (7'5), Txaturanga (6'5) eta Gros J eta Gros K (bi horiek seipunturekin) izango ditu.

Lau podium lortu zituzten Ipuruako gimnastek azken asteburuan

Aurreko zapatuan Leioan jokatu-tako Euskal Ligaren lehenengo fasean, Nahia Arguizek senior mailako lehenengo postua eskuratu zuen mazekin egindako ariketan, horrela podiumeko gorenera igotzeko. Eta Oinarrizko Jubenilen taldea bigarrena izan zen bere mailan. Baina hori ez zen izan azken horren lorpen bakarra, Oinarrizko Jubenilek postu bera eskuratu baitzuten Gasteizen jokaturako Beti Aurrera Torneoa. Azken horretan, amateur mailako Alicia Etxaniz hirugarren postuan sailkatu zen, uztaiarekin egindako ariketari esker. Domeka honetan



Azpeitian izango dute hitzordua eibartarrek, bertan jokatuiko den Amateurren Gipuzkoako Txapel-

ketarako sailkapenerako bigarren fasean. *(Argazkian, oinarrizko jubenilen boskotea)*



Denetarik izan zen saskibaloia laukotean

Aurreko asteburuan senior mailako gure herriko lau taldeen artean bi garaipen eta beste bi porrot izan ziren. Probintziako 2. Mailan jokatzeko duen Eibar Saskibaloiko emakumezkoen taldeak 64-56 irabazi zion Zast Zarautzi eta, garaipen horrekin, eibartarrek kostaldeko hartzen diete aurrea sailkapenean, zortzigarren postura igotzeko. Gizonezkoen taldeei dagokienez, 2. Mailako biek galdu zuten orain-

goan: Artesanos Juantxok bigarren faseko lehenengo porrota ezagutu zuen, Elorri-Aldaparen aurka 63-81 galduta Ipuruan, eta gogorragoa izan zen Eibar Saskibaloia B-ren porrota, Contubi Oiaresorekin 53-19 markagailu motzean geratu ondoren. 3. Mailako Eibar Saskibaloia C taldeak, bestalde, Astigarragako Mundarro B-ri 61-66 irabazi zion, bigarren faseko bide zuzenetik jarraitzeko.

Deportiboak Batzar Nagusiak egingo ditu datorren eguaztenean

Hilaren 20an, eguaztena, ohiko eta ez-ohiko bilkura nagusiak egingo dituzte Eibarko Klub Deportiboan, bata bestearen atzetik. Ohikoa 19:00etan hasiko da bigarren deialdian eta, urteroko bidetik joango bada ere, bertan 2024ko ekintzen plan zehatza ere jakinaraziko da, batzordez batzorde. Jarraian, ez-ohiko bilkura hasiko da 20:00etan bigarren deialdian. Azken horretan Zuzendaritza Batzordeko honako

kideak hautatu dira: presidentea eta zuzendaritzako kideekin batera, Mendia, Atletismoa, Eskia, Argazkilaritza eta Kultura batzordekoak. Hautagaitzak bilkuran bertan aurkeztu behar dira.

Baietz 312 mendi!

Mendeurrenaren baitan, proiektu berri bat ere aurkeztuko dute Deportearekin egun batzuk barru. 312 mendiena izango da, "Urko argiz-

tatzen egon zen jende kopuruari lotutakoa". Klubaren 75. urteurrenaren bidetik joko du proiektu horrek ere, orduan Pirinioetako 3.000 metrotik gorako mendi guztiak igo ziren-eta, 212 guztira. Klubaren webgunean azalduko dute mendien zerrenda, "guztionezko modukoak izateko asmoarekin (zailak, errazak, esanahi berezia dutenak); horixe da 2024-rako gure buruari jarritako erronka".



Norbera zaindu, elkar zaindu... bidea errazteko. BAKARNEEJALDE



Egitarau osoa
deskargatzeko:



martxoak 15 (barixakua)



“La sed del minotauro”

Khea Ziater (Bizkaia)

Jon eta Alex Gerediagaren lana

Tragikomedia / 80’

Antzeleak: JON ANDER URRESTI, ANHOA

ARTETXE, LEIRE UCHA, ARRATE ETXEBERRIA

Zuzendaria: ALEX GEREDIAGA

Hotz egiten duen leku bateko geltokitik gertu dagoen taberna biki batean gertatuko da dena. Bezeroak sartu-irtenean dabilza, maitasunaren bila, mundu batek ihesi.

Coliseo (19:00)

martxoak 17 (domeka)



“Aquí no paga nadie”

Taller de Teatro Banarte (Bizkaia)

Dario Foren lana

Komedia / 60’

Antzeleak: RICARDO IZAGIRRE, EDORTA

URIONDO, MAITE EGIDAZU, MIKEL JIMENEZ

Zuzendaria: MIKEL AREITOURTENA

Barre egitera eta hausnarketara gonbidatzen gaituen lanean, badago kritika politiko eta sozial gordina ere. Aktore-talde bat solidarioki lanean, minbiziaren elkarte bati laguntzeko.

UNI-Eibar (19:00)

martxoak 18 (astelehena)



“Nevenka”

Histrión Teatro (Granada)

Maria Goiricelayaren lana

Drama / 90’

Antzeleak: GEMA MATARRANZ,

ALES FURUNDARENA, MARTA MEGIAS

Zuzendaria: MARIA GOIRICELAYA

2001ean, Espainiako historian lehenengoz, emakume batek irabazi zuen politikari bati jazarpen sexuala egotzita egin zioten epaiketa. Hainbeste aldatu ez den gizarte baten isla.

Coliseo (19:00)

martxoak 19/20 (martxoaren bigarrena)



“Masustondoen patioa”

Vaivén Produksioak (Gipuzkoa)

Sandra Ferrús en lana

Tragikomedia / 70’

Antzeleak: SANDRA FERRÚS, SARA COZAR,

MARTXELO RUBIO, AZPEIA GOENAGA

Zuzendaria: SANDRA FERRÚS

Herri biki bateko familia xume bati ahotsa ematen dion lanean familiak bere iragana eta oraina modu ausart eta konprometuan bizi ditu, elkar ulertzearen kantua eskainiz guztioi.

Coliseo (19:00)

“Jendeak espero ez duen zerbait ikusiko du Masustondoen Patioan”

AIZPEA GOENAGA • Antzezlea



Vaiven antzerki taldea "Masustondoen patioa" lan berriarekin dator Antzerki Jardunaldietara. Bi saio eskainiko dituzte datorren astean, lehenengoa martxoaren 19an (gaztelera) eta 20an bigarrena (euskaraz), bata zein bestea Coliseo antzokian. Aizpea Goenaga antzezleak bietan hartuko du parte, eta pozik eta harro hitz egin digu lanaren eta taldekideen inguruan.

Labetik atera berri duten "Masustondoen patioa" lanarekin datoz Vaiven konpainiakoak Eibarrera. "Isabelek hogeitun urte daramatza jaioterriatik kilometro askotara bizitzen, familiaratik, sustraietatik eta hazitokitik urrun. Ama, Amparo, gaixotu, eta Isabel etxera itzuliko da bere zaintzan laguntzeko, Candi ahizpak eta aitak arnasa hartzeko aukera izan dezaten, haiek baitira bertan bizi eta egunerokotasunaz arduratzen direnak"...

Sandra Ferrusek idatzi eta zuzendutako lanak familia baten bizitza erakusten du. Zer kontaktzen da?

Bizitzari buruzko istorio bat da. Badauka erralismo magikoaren parte bat, haurtzaroko oroitzapenak bakoitzak nola bizi ditugun, familia, auzoa... Errekorrido hori egiten du. Gauzak nola dihoazen aurrera, eta konsekuentziak. Beti esaten dut puzzle bat dela, pieza asko daude eta denek enkajatzten dute.

Lan berri-berria da. Pozik zaudete emaitzarekin?

Aurrekoan Saroben (Urnieta) egin genuen emanaldia gertuko jendearen aurrean, eta oso polita izan zen. Askok hunkitu ginen, ez genuen hain erantzun beroa espero. Barre asko egin zuten, batzuk negar ere bai. Gauza asko gertatzen dira, familia barruko harremanetan gertatzen den bezala. Oso ondo kontaktatu dago, modu gertukoan. Burua martxan jartzen dizu,

eta hori oso polita da. Gazte asko etorri ziren eta asko gustatu zaitzaien. Ondoren solasaldia egin genuen eta esan ziguten orduan ulertzen zituztela familia barruan ematen diren egoera asko.

Amparoren papera egiten duzu? Nolakoa da bera?

Amparo ama bat da. Bizitzak askotan eramaten zaitu gogortzera, eta Amparo gogortasun hori daukan ama bat da. Emakume horrek hartutako erabaki batzuk ondorio batzuk ditu familian, eta kide bakoitzak ondorio horiek leku desberdin batetik bizi ditu. *Flas back* asko daude, etengabe goaz atzera eta aurrera, baina, solasaldian esaten zuten bezala, ez zara konturatzen. Oso lan bizia da.

Enpatiari eta duintasunari buruzko lana da...

Batzuetan gure inguruko erabakiak ez ditugu konpartitzen, baina entzun egin behar dira. Erabaki horiek batzuetan kalte edo mina egin dezakete, baina duintasunarekin hartzen direnean onartu egin behar dira. Antzezlanean oroitzapenek leku handia dute. Oroitzapenak kariño handiarekin gordetzen dira, nahiz eta gauza batzuk modu gogor batean bizi izan. Oroitzapen gehienak politak izaten dira. Familia baten eguneroko gauzei buruz hitz egiten dugu, ez da oso gauza transzendentalei buruz hitz egiten. Gertutasunatik, oroitzapen horietatik hitz egiten da. Eta hortik mundu bat eraikitzen da, protagonistak bere



Euskarazko eta gaztelerazko bertsioetan Aizpea Goenaga eta Martxelo Rubio dira aktore finkoak.

imaginarioan sortzen duena, eta mundu magiko horrek eramaten zaitu gaur egungo mundura.

Martxelo Rubio eta zu bi bertsioetan aritzen zarete eta beste aktoreen artean batzuk euskarazko bertsioa egingo dute eta beste batzuk gaztelerazkoa. Zer moduz moldatzen zarete?

Oso lantalde jatorra osatu dugu. Konexio handia daukagu gure artean eta hori antzezlanean ikusi egiten da. Elkarren arteko interaktuatze hori oso bizia da. Zuzendariak eraman gaitu horretara, jakina, eta guk bide hori jarraitu dugu. Publikoa ere gurekin batera bide horretan sartzen da, eta istorioa berea egiten du.

Antzele lanetan aritzeaz gain, itzulpen lana ere egin duzu.

Bai, eta kuriositate bezala esango dizut euskarazko bertsioa ez dela gaztelerakoa baino luzeagoa. Dakizuenez, euskarazkoek gehiago irauten dute, baina kasu honetan oso gurea egin dugu eta azkenean berdin irauten du. Itzulpena nik egin dut, baina gero aktore bakoitzak bere euskara eta bere espresioak sartu ditu, lana aberastuz. Oso euskara maila handia daukate guztiek eta horrek zuk egin duzun lana asko aberasten du. Hizkuntza oso kolokiala da eta horrek lanari laguntzen dio. Ibilbide polita izan da. Egia esan, oso pozik gaude eta espero dut Eibarren ondo joatea. Jende askok esaten du: "Ez dakigu zertara

“Gauza asko gertatzen dira, familia barruko harremanetan gertatzen den bezala”

goazen". Eta hori da politena, butakan eseri eta kitto. Zure burua bide horretan uzten baduzu, disfrutea oso polita izango da. Gure artean disfrutea dago eta gure helburua da publikoari gozamen hori pasatzea, alde gozo eta gaziekin. Sorpresa izango da jendearentzat, espero ez den gauza bat ikusiko dute. Gazteentzako, helduentzako... denentzako polita da. Ez naiz saltzaile ona eta, esaten badut, zeozergatik da.

Ziur gaude eibartarrek oso ondo erantzungo dutela. Gainera, ondo ezagutzen duzun publikoa da.

Eibarko publikoa zoragarria da, oso entregatua. Donostiako hotzagoa den bezala, Eibarko oso beroa da. Gainera, nik Eibarko kuadrilla daukat, oso eibarzalea naiz. Gure amona zenak zera esaten zuen: "Donostin biziko ez banintz, Eibarren biziko nintzateke. Zergatik? Emakumeek inon bezala bizitzen badakitelako". Amonarekin bat dator.



Ana Apikaren “Rol jokoa” Zapatuko Ipuinean

Zapatuko Ipuinaren hurrengo saioa martxoaren 23an egingo da, eta joan nahi dutenek izena eman beharko dute aurretik, astelehenetik aurrera, udalaren webgunean eskuragarri egongo den formularioa beteta. Ana Apikak *Rol jokoa* izenburuko kontakizuna eskainiko du, 5 urtetik gorakoentzat. Bere berbetan, “ipuin kontaketa honekin, etxeko lanak familiako kide guztien esku egon behar direla azpimarratu nahi dugu. Aldi berean, etxeko harremanetan oinarrituta dagoen arren, gizarte honek ematen dituen aukera guztiak denontzat direla ere erakustea nahi dugu”. Saioa 18:00etan hasiko da, Portaleko areto nagusian.



Apirilerako ikastaroen eskaintza Kzgunean

Eibarko Kzgunea prest dauka apirilerako planifikazioen eskaintza: laguntza-ikastaroak, e-Administrazioa, oinarritzko formakuntza, ofimatika, produktibitatea eta segurtasuna lantzeko aukera egongo da datorren hileko kurtsoetan. Informazio gehiagorako: <https://www.kzgunea.eus/eu/ikastaroak>.



Eguen Zuri lehiaketako argazkien erakusketa zabalik

Edizio honetako irabazleei sariak banatzeko ekitaldiarekin batera, aurreko barixakuan zabaldu zen XXVI. Eguen Zuri argazki lehiaketako lanen erakusketa, Topalekuan. Hèctor Abela Arbuésen *Harlequeens* lanak irabazi du Arrate Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen lehiaketako lehen saria. Argazkilaria Katalunian bizi da, eta ezin izan zen etorri saria jasotzera, baina bere poza eta esker ona azaltzeko bideoa bidali zuen. Bere berbetan, saria eman dion argazkia lortu arte luzaroan aritu zen lanean, eta saria jasotzeak ilusio handia egin dio.

Martxoaren 24ra arte ikusgai, tabernatik sartuta

Bigarren saria, berriz, Fernando Solana Marquezek (goian) eraman du, *Nekaezina* izenburuko lanarekin. Donostiako Aratosteetan egin zuen argazkia, Kalderero egunean, kalean zihoala, ezustean, erretratuko gizona parean ikusi zuenean. Eta, hirugarren saria, Pedro Arriola Arrizabalagaren *Flamenkoa* lanarentzat izan da (behean). Eibarren egin zuen argazkia, aurtengo Aratoste zapatuan, Untzagan. Azaldu zuenez, eguerdian Untzaga plaza koko-jantzitako jendez gainezka zegoen, baina halako batean flamenkoz jantzitako neska zuen jarrerak, hanken posizioak, atentzioa deitu zion eta horregatik egin zuen argazkia. Inguruko jendea ez ikusteko atzealde guztia ilundu egin du. Martxoaren 24ra arte egongo da ikusgai, tabernatik sartuta.



Eibar eta Soralezeko musika eskoletako ikasleekin batera arituko da Musika Banda

Hirugarren urtez, Eibarko Musika Banda gure herriko eta Soralezeko musika eskoletako ikasleekin batera arituko da, elkarrekin kontzertua emateko. Domekan izango da, 12:30ean Coliseon eta, Andoni Vazquez zuzendariak esan digunez, "musika ikasleak aurreko astean hasi ziren Musika Bandarekin batera saioak egiten, emanaldirako prestatzen joateko". Kontzertuan Musika Bandak bi abesti joko ditu bakarka, eta beste lauak musika eskolako ikasleekin batera eskainiko dituzte. Hau da programa: *Gose-jokoak (The Hunger Games)*, *Eraztunen jauna: Eraztunen Elkarteak (The Lord of the Rings: The Fellowship of the Ring)*, *Harry Potter eta Suaren Kopa (Harry Potter and The Goblet of Fire)*, *Earth, wind and fire dance mix*, *Fiesta tropical* eta *The best of Blues Brothers*.



UEUren Barredromoa egingo da Eibarren apirilaren 16an

UEUren eskutik *Barredromoa*, zientziari buruzko umorezko bakarriketak hartuko ditu Markeskuak apirilaren 16an, 18:00etan. Sarrera libre da, baina komunikazioa@ueu.eus-era idazteko eskatu dute.



Abuela Margaritari buruzko bideo-foruma astelehenean

Emakumeak historia egiten egitasmo bideo-forum saioa egingo da astelehenean Andretxean, 18:00etatik aurrera. Patricia Pérex Cotok dinamizatuko duen saioan, Jalisco-Guadalajara estatuan (Mexiko) jaio-tako Margarita Núñez García (*Abuela Margarita*) izango da protagonista. Antolatzailuek azaldu digutenez, Amerikako Emakume Zaharren Kontseiluko kide zen, "eta bere zeremonia eta *temascal*en bidez, indigenen tradizio jatorreneko erritualekin gure arbasoak gogoratzen irakasten zigun. Feminista ere bazen, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzearen alde egiten zuen, desberdintasunak naturan eragin negatiboa duela esaten baitzuen". Sarrera libre izango da. Eibarko Martxoak 8 lantaldeak antolaturiko ekintza da hau, Martxoaren 8ko programazioaren baitan.

Oskar Arantzabalek ekonomiari buruzko hitzaldia emango du



Ikasten elkartearen eskutik, datorren astelehen egunean (martxoak 21) *Oinarrizko ekonomia historian zehar* izenburuko hitzaldia emango du Oskar Arantzabal Iraet-

tak, 10:00etatik 12:00etara, Armeria Eskolako areto nagusian. Ikastenek antolatzen dituen jarduerak guztietan bezala, sarrera libre izango da. Arantzabal Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna da, Deustuko Unibertsitatean, eta UEUko ekonomia atalaren arduraduna ere bada. Bestalde, jarduerak berezi gisa, martitzenean Ondarrura joateko irteera ere antolatu du Ikastenek.



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

6		3	5		
		4	8		
	5		1	9	
3	4				9
8					1
		9			5
7	3		6	2	4
				8	2
			4	3	6

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

**S
U
D
O
K
U**

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z
B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A
C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B
D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C
E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D
F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E
G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F
H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G
I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H
J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I
K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K
M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M
O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N
P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O
Q	R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P
R	S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q
S	T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R
T	U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S
U	V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T
V	W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U
W	X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V
X	Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W
Y	Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X
Z	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	O	P	Q	R	S	T	U	V	W	X	Y

soluzioa

6	7				
	9	4	8		
5	8		7		2
1	8	3	4		5
9			6		1
4			5	9	2
	5			6	1
			2	6	3
				5	2

Martxoak 15 / 21

BARIXAKUA 15

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "La sed del minotauro" (Khea Ziater, Bizkaia). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

KORRIKA KULTURALA

21:00 Kantu-afaria. Arrate Kultur Elkarte.

ZAPATUA 16

AZOKA

10:00/14:30 Eibarko XIV. Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka. Haurrentzako tailerrak. Urkizuko parkea.

MANIFESTAZIOA

12:00 Eskualde mailako manifestazioa, osasungintza publikoaren defentsan. Untzaga.

KORRIKA KULTURALA

13:00 Korrika Eguna, Eibarko gazte mugimenduaren eskutik. Hitzaldia. Eibarko Bizikleta Plaza (Galeros).

19:30 Kantu-poteoa.

21:30 Gaztetxeko ate irekiera.

22:00 Slide.

23:30 Emaion erromeria.

01:30 DJ Maurizio. Eibarko Gaztetxia.

MUSIKA

19:00 Rodrigo Cuevas, "La Romería" lan berria aurkezten. 25 euro (17,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MUSIKA

20:00 Lorearen kontzertu akustikoa. 5 euro. Ipuuako Merkatu Plaza.

DOMEKA 17

NEGUTRIL

08:30 Topaketa, Silvia Triguerosekin. Eibarko Klub Deportiboa.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua, Eibarko eta Soraluzeko ikasleekin batera. Coliseo.

URTEKO BATZARRA

13:15 Urtean zehar hil diren Goi-Argi elkarteko bazkideen aldeko meza. San Agustin eliza.

18:30 Batzarra. Jarraian, oparien zozketa. Goi-Argi elkarte (T. Etxebarria kalea).

KORRIKA KULTURALA

17:00 Binakako pilota finalaurrekoa. Argazki ofiziala Korrika arduradunekin. Astelena frontoia.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Aquí no paga nadie" (Banarte antzerki taldea, Bizkaia). 5 euro. Hezkuntza Esparrua.

ASTELEHENA 18

BIDEO-FORUMA

18:30/20:00 Emakumeak historia egiten: La abuela Margarita. Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Sarrera librea. Martxoaren 8ko lantaldeak antolatuta. Andretxea.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Nevenka" (Histrión Teatro, Granada). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MARTITZENA 19

KORRIKA TXIKIA

15:15 Korrika Txikia. Amaiera Untzagan (euria egingo balu, Errebalen).

GURE ESKU

18:30/20:00 Ikurriña eta Nafarroako banderen salmenta. Zapore izozki-denda (Toribio Etxebarria kalea, 7).

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El patio de las moreras" (Vaivén Produksioak, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUAZTENA 20

23. KORRIKA

10:30 Korrika Eibarren. Unibertsitatetik Maltzagaraino.

HITZALDIA

17:00 "Dementia: ezagutzen dituzu?". AFAGI elkartearen eskutik. Portalea (areto nagusia).



GURE ESKU

18:30 Ikurriña eta Nafarroako banderen salmenta. Zapore izozki-denda (Toribio Etxebarria kalea, 7).

URTEKO BATZARRA

19:00 Ohiko Bilkura Nagusia.
20:00 Ez-Ohiko Bilkura Nagusia. Eibarko Klub Deportiboa.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Masustondoen patioa" (Vaivén Produksioak, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

EGUENA 21

HITZALDIA

10:00/12:00 "Oinarritzko ekonomia historian zehar", Oskar Arantzabal Iraetaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emailentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

KORRIKA KULTURALA

19:00 "Badon" opera postdramatikoa (Herria, Gipuzkoa). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 24ra arte:

- **EGUEN ZURI** argazki lehiaketako argazkiak. (Topaleku).

- **"QUO VADIS, EUROPA",** Leire Kareagaren artelanak. (Portalea).

- **"ZURE BARATZEAN HAZTEN DEN GUZTIA",** Andrea Alvarezen artelanak. (Portalea).

Apirilaren 16ra arte:

- **"AMA TA ASUNAK",** June Baonza Pagaldaireren proiektua. (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- 16an: 17:00
- 17an: 20:00

"Hotel Royal"
DRAMA



2023/Australia/90'
Zuzendaria: Kitty Green
Aktoreak: Julia Gamer,
Jessica Henwick, Hugo Weaving
Thriller/Intriga

2 ARETOA

- 16an: 19:45, 22:30
- 17an: 17:00, 20:00
- 18an: 19:30

"Los pequeños amores"
DRAMA



2024/Espainia/95'
Zuzendaria: Celia Rico
Aktoreak: Maria Vazquez,
Adriana Ozores, Aimar Vega
Familia arazoak/Alaba eta ama

1 ARETOA

- 16an: 19:45, 22:30
- 17an: 17:00, 20:00 (Antzokia)
- 18an: 19:30

"Portus muertos"
KOMEDIA



2024/Espainia/93'
Zuzendaria: Sayago Ayuso
Aktoreak: Jose Mota, Jorge Sanz,
Marta Belenguer
Musika/Berriz elkartzea

ANTZOKIA

- 16an: 17:00 (2 Aretoa)
- 17an: 17:00

"La aventura infinita"
ANIMAZIOA



2021/Errusia/89'
Zuzendaria: Andrei Kolpin
**Abenturak/Fantastikoa
Familian ikustekoa**



Iban Ortiz de Villalba Goikoetxea

2024/03/12

**"Ez zaitugu
inoiz ahaztuko,
beti eramango
zaitugulako gure
bihotzetan"**

- ZURE LAGUNAK -



FUNEUSKADI
Funeraria Mugica



TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funeraria



TANATORIO EIBAR TORO

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Eibarko bulegoa:
Eidebarrieta, 20

Elgoibar:
Xivilion, s/n. SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Ernuako bulegoa:
Marqués de Valdepinna, 16

**Eibar · Elgoibar · Ernuak · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao**

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARCO!!**
Astelehenian 7 urte
beteko dozuz!!!
Musu haundi bat
etxeko guztion
partez!



Zorionak, **UXUE!**
Hillaren 18xan
eguzkixari
lehelengo bira!!
Eskerrik asko gure
bizitza alaitziarren.
Maite zaittugu!!



Zorionak, **ELENE.**
Gaur 10 urte
egitten dozuz!!
Segi beti bezain
irrifartsu. Musu
erraldoi bat
famelixaren partez.



Zorionak, **LAIA,**
hillaren 5ian 9 urte
bete zenduaz-en-
eta. Etxeko guztien
partez.



Zorionak, **AITXITXA
JOXE,** domekan
urtiak bete zendu-
zen-eta. Munduko
aitxitxa onena zara.
Malen, Intza, Lizar
eta Izei.



Zorionak, **AMAIA,**
bixar 10 urte
egingo dozuz-
eta. Asko maite
zaittugu.



Zorionak, **EKAIN!**
Atzo 2 urte bete
zenduaz-en-eta.
Patxo potolo bat
aitta, ama eta
famelixa guztiaren
partez!



Zorionak, **MARTIN,**
hillaren 18xan
9 urte beteko
dozuz-eta! Musu
erraldoi bat
famelixakuen
partez.



Zorionak, **ANE!!!**
Gaur 12 urte! Egun
zoragarrixa pasau
eta jarraitu beti
bezain alai eta
zoriontsu.
Etxekuen partez.

kili  klik
argazkilaritza fotografia

646114443 · kili_klik ☎
kilimaksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1

garbibox
auto-garbitasun
erregularrak

TAPIZARIA + AUTO GARBIKETAK
Urtzi Antxustegi (688 649 837)
09:30/19:00 **EROSKI-n**



Iragarki laburrak

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA**1.1. Salgai**

- Errioxan, Bañareseko kanporean, mobilhome salgai (9,20x3,70 m). Itxitako portxe handia (10x3,50 m) eta 30 m karratuko lorategiarekin. 637587811.

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).

3. LOKALAK**3.1. Salgai**

- Lokala salgai (102 m²) Legarreko dorrean, egokia komertziorako edo garaje bezala erabiltzeko. 626719802 eta 659504114.

4. LANA**4.1. Lan bila**

- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta mekaniko bezala. 605363057.
- Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketarako egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602109464.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642671818.
- Neska eskaintzen da etxean lan egiteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako. 661181824.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Esperientzia. 632716763.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631959843.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerarako. Esperientzia nagusiak zaintzen. 631759107.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 679912841.
- Irakasle ikasketak egiten diharduen neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. 629360924. Naiara.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriararekin). Esperientzia. 642577823.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko. 634651895. Anabel.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. 673764776.

4.2. Langile bila

- Ilea zaintzailea behar da. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com. 626524949.

5. IRAKASKUNTZA**5.2. Eskaintzak**

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK**6.1. Salgai**

- Kanping-denda kanadiarra salgai. 4 lagunentzako. 30 euro. Ia berria. 943701013 / 659538158. Iñaki.

MGEP

MODURAREN ERABILKETA POLITIKAREN
ON BARRIA ANIZTIAGARRIA, KUOP 1

#LanerakoGertu



Markel Perez Arregi
Mekatronika Industriala
Gol Mailako Heziketa Zikloa

Zer dela eta erabaki zenuen Gol Mailako Heziketa Zikloa hau egitea? Eta zergatik MGEpen?

Berrikuntza gaitzak lan zehazki teknologikoen bitarteko gaitak. Hala ere, baita ingeniari mekanikoa sartu nintzen, baina hau utzi eta teknologia edo industria munduan jarraitzeko aukerak onenak mekatronika industrialeko gol mailako zikloan sartzea erabaki nuen. Eta MGE-ri erantzuten arazoa zehazki zere gertatzen izan da.

Zer suposatzen du zuretzat zikloa ikasteak? Zikloko zein aspektu azpimarratuko zenuke?

Industriako aplikatzen diren hainbat eragutza ikasteak baita ere, eta teoria hori ia gurtze praktikan jartzea ere lortzeko.

Noliz hasi zinen DUALean? Noliz bukatzen duzue? Zein izan da zure Instruktoaria ENPRESAn? Zein da ENPRESAn lan esparrua edo sektorea? Eta zein da zure DUALeko lan saila?

2023ko ekainaren 11an hasi nintzen eta hurrengo urteko Ekainaren 11an bukatuko dut. Nire Instruktoaria Asier Gutierrez da. Enpresari dagokionez makina-

eremua sektorean egiten da lana. Niretzat buruen lan sailan egon nahi. Zein motatako lanak egiten dituzte DUALean? Ikasitakoarekin zerlotuak al duzude? Zer nolako ardurak hartu behar izan dituzte? DAS (Dynamic active stability) ikuntzatzen dicit, hotsadoren kameras doaden bitartezko ardurak amonduko sistema bat da. Hauxe muntatzenko ardurak ikasitako hantat arlo zerlotuak dauzka esango nuke sistema mekanikoa, planok interpretatzen, sendak eta potentzia sareak kabitzen... Arduraren aldeak hantat ardurak hartu dituzka esango nuke, baretik DAS-a muntatzen ardurak edukitzea, hau da muntatze egoki bat izatea ondoren hau probatzen edo merban jartzenko ardurak dena ondo dagoela ziurtatzen, eremua batzen erabileraren ardurak ere...

Zer eskaini dizu ENPRESAn DUALa egitea arlo pertsonaletik zein arlo tekniko-profesionaletik?

Aldi pertsonaletik disiplina edukitzea, izan ere, egunero gaitz jaitzek eta egunero behar den ardurak egotzeki disiplina ematen dizu. Horetaz aparte, jendakelako tratu egoki edukitzea, izan ere, adin, postu desberdinetako jendakelako tratu edukitzea garrantzitsua da lanan baretzen ongi izatea baretzeko. Arlo profesionaletik, industria mailan lan garrantzitsua moduko proiektu hau muntatzen eta probatzen gaitzak, errealizatu sentitzen nahi.

Ze garrantzitsua esango zenuke orain ikasitako arlo den norbait? Edo zikloa ikasitako ez pentsatzen ari den norbait?

Industria zer den edo teknologia mundua gaitzaten zein pertsona hori gurtze garrantzitsua nire ziklo hau, gurtze murgitu ardurak zuretzat sektore hantat.

ATE IREKIAK: Martxoak 23, 11:00
Maiatzak 4, 11:00



Eman izena!

MGEP: 664 298 683 // 664 298 704

eta kitto!-k

ZAPOREAK proiektuarekin bat egiten du

dilista pardina gurera ekarri dezakezu

astelehenetik barixakura

hilaren 18tik 22ra arte

(10:00-13:00 eta 16:00-19:00)

Urkizu pasealekua, 11 - solairuartera

ERREFUXIATUEN DUINTASUNA ELIKATZEN ERE

lagundu dezakezue honako

BILKETA TOKIETAN

T. Etxebarria (ARAT Hertz-Klinikaren azpian)

Ikastetxeak / Tekniker / Debegesa

Ipuruako Jubiletxea / Untzagako Gizarte Etxea

Amañako Kioskoa / SD Eibarko denda



ZAPOREAK SOLIDARIO





zarelako **o**para

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea